



Adingabeen babeserako probintzia-politikak

Probintzia-Kontseiluak onartua

2020ko uztailaren 9a

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.....	3
1. Sarrera	5
2. Probintziaren deskribapena	7
3. Deklarazio instituzionala eta printzipio orokorrak	8
4. Ibérica Probintzia Maristaren konpromisoa	15
5. Probintzia-organigrama: erantzukizunak eta eginkizunak	16
6. Adingabearen babesa tratu txarren aurka	22
7. Haurren eskubideen sustapena	27
8. Tratu txarren prebentzioa	28
9. Tratu txarren edo abusuen susmo edo ebidentziaren aurrean esku hartzea	33
10. Adingabeak babesteko politikaren garapen probintziala eta tokikoa	37
1. eranskina Erreferentziazko arau-esparrua	39
2. eranskina Adingabeak babesteko politikaren estandarrak	40
3. eranskina Terminoen glosarioa	41

Hitzaurrea

"Zuek zarete munduarentzat argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen hiria"(Mt 5,14). Hitzordu ebanjeliko horrekin hasten du Frantzisko aita santuak "Vos estis lux mundi" gutun apostolikoa, 2019ko maiatzean promulgatua, eta dei egiten die Elizan nolabaiteko erantzukizuna duten guztiei, eta, oro har, fededun guztiei, "bertutearen, integritatearen eta santutasunaren adibide argitsua" izan gaitezen.

Dagoeneko bederatzi urte igaro dira Institutu Maristak, egoera desberdinetan Frantzisko aita santuak gotzainei eta erakunde erlijiosoetako arduradun guztiei hainbat bideren bitartez zuzendutako deien ondorioz, adingabeen babesari buruzko kontzientiazio- eta sensibilizazio-prozesu bat abian jarri zuenetik eta iraganean gertatutako abusu-egoera guztiak salatzen hasi zenetik. Era berean, etorkizunean horrelakorik gerta ez dadin neurri egokiak hartu dira. Adingabeak babesteko politika instituzionalak formulatu ondoren, gure Ibérica probintzian, gainerako probintzia maristetan bezala, sensibilizazio- eta protokolizazio-lan handia hasi genuen, iraganean gerta zitezkeen egoerak ezagutu eta salatzeko, bai eta etorkizunean neurriak hartu eta prebenitzeko ere, geure inguruneetan gure ardurapean utzitako adingabeen segurtasuna arriskuan jar dezaketen egoerak berriro gerta ez daitezen.

Hainbat ekimen hartu ziren eta garatu dira urte hauetan: probintzia-talde bat sortzea adingabearen babeserako probintzia-politikak egitea eta ezartzea koordinatzeko, gure obretan adingabeekin harremanetan jartzen diren agente guztiak prestatzea eta sensibilizatzea, iraganean gertatutako balizko egoerak ikertzea eta argitzea, gerta litezkeen abusuak prebenitzeko jarduera-protokoloak egitea eta zabaltzea, adingabea babesteko tokiko taldeak sortzea eta prestatzea, etab.

Denbora honetan zehar, gure erakundeko kideen aldetik iraganean abusuren bat jasan zuten biktima batzuekin harremanetan jartzeko aukera izan dugu. Barkamena eskatu diegu erakundearen izenean, eta gure laguntza eskaini diegu. Zauri batzuk sendatzen errazak ez direla uste dugu baina ahal izan dugun guztia egin dugu biktimek jasandako mina, ahal den neurrian, arindu dadin. Haiek ere eskerrak eman dizkigute gertatutakoa aintzat hartzeagatik, barkamena eskatzeagatik eta erakutsi diegun hurbiltasunagatik. Jakin badakigu, halaber, ez garela biktima guztiengana iritsi, izan ere, kasu batzuetan anonimotasuna mantendu nahiago izan dutelako, edo, beste kasu batzuetan, iragandako denborak eragotzi digulako biktimen eta sufrimendu hura eragin zuten pertsonen berri zehatza izatea. Sentitzen dugu egindako zauriak erabat sendatzen ezin lagundu izana, eta biktimekin sentitzen dugu haiek jasan zuten min guztia.

Egin dugun beste zeregin bat da prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea gure hezkuntza-inguruneetako agente guztien artean, familiak, adingabeak, hezitzaileak, laguntzaileak, anai-arrebak... Zeregin hori ez da inoiz guztiz amaituko beti egon beharko baitugu zaintzaile-jarreran eta prebentzio-neurriak eguneratuz. Gure esku utzi dituzten adingabeekin nolabaiteko harremana duten guztiek arazo horretaz jabetzea eta aktiboki laguntzea nahi dugu, adingabe baten aurkako abusu-kasu bat inoiz gehiago gerta ez dadin, ahal den neurrian, edo, gertatuko balitz, inoiz ez dadin zigorrik gabe geratu. Elaboratutako eta zabaldutako protokoloak, prebentzio-neurrien promulgazioa, barne- eta kanpo-auditoretzak, tutoretza-ekintzaren bidez adingabe guztiei zuzendutako prestakuntza-ekintzak eta haiekin harremanetan jartzen direnei zuzendutako prestakuntza-ekimen ugariak, lagungarriak dira gure konpromisoa gauzatzeko. Hala ere, inoiz ez gara ziur egongo benetako gaitz sozial honekin amaitzeko behar adina egiten ari garenik.

Orain, nahiko pozik esan dezakegu sentsibilizazio- eta prebentzio-lan garrantzitsua egin dugula. Gure hezkuntza- eta apostolu-inguruneak adingabeentzat seguruak izan daitezen zeregina dugu aurretik. Ahalegin horretan denok gaude konprometituta: Probintzia-Kontseilua, obretako zuzendaritza-taldeak eta adingabea babesteko probintzia- eta toki-taldeetako kideak. Adingabearen Babeserako Probintzia-Taldeak egin berri duen Probintzia-politiken eguneratzeak (testua duela gutxi onartu du Probintzia-Kontseiluak) erakusten du gure ahaleginari eta konpromiso irmoari eutsi nahi diegula, gure ardurapean utzi dituzten adingabeak ingurune seguru batean zoriontsu hazi ahal izan daitezen.

Anaia Moisés Alonso Pérez
Probintzia-Nagusia

1. Sarrera

Anaia Maristen Institutua haurren babesarekin konprometituta dago. Haren betebeharra da helburu hori mailarik gorenean lortzen saiatzea, batez ere adingabeekin harremanetan jartzen diren obretako agenteei dagokienez, eta dokumentu honetan proposatutako irizpideak eta printzipioak betetzen ahalegintzea.

Erakundearen misioa haur eta nerabe guztiei zuzenduta dago, arraza, kredo edo baldintzagatik inolako bereizketarik egin gabe, Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsala erreferentziazat hartuta.

XXI. Kapitulu Jeneralak (2009) pastoraltza maristaren alor desberdinetarako helburutzat ezarri zuen haurren eta gazteen artean presentzia nabarmena izatea. Haurrekin, bereziki pobreenekin eta pribilegio gutxien dutenekin lan egiteko enfasi berritu honetan, konpromisoa hartzen dugu haien ongizatea sustatzeko, beren eskubideak defendatzeko eta kalte, esplotazio eta abusu guztietatik babesteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzeko.

XXII. Kapitulu Jeneralak (2017), abusuak gaitzesteko mezu bat argitaratu zuen, eta berriro gerta ez daitezen baliabide guztiak jartzeko konpromisoa hartu zuen:

"Azken urteotan, Institutu Maristan haurrak gure erakundeetan babesteko egin den lanari laguntzen diogu, bai eskoletan, bai gizarte-obretan, edota beste zerbitzu batzuetan. Zeregin hori gauzatu da, batez ere, mundu maristako leku guztietan Haurren Babeserako Politikak inplementa daitezela eskatzean, baita trebakuntza- eta kontzientzia-programen bidez ere, haurren abusua gure erakundeetan berriro gerta ez dadin. Gure Kapitulu Jenerala amaitzean, proaktiboak izateko konpromisoa hartzen dugu, Institutu Marista, maila guztietan, haurren babeserako estandar gorenetara egokitzen dela ziurtatzeko, gure obra guztiak haurrak seguru eta gustura sentitzeko lekuak izan daitezen".

Ibérica probintzia maristak, haurren babesari buruzko politika instituzionalari jarraitu nahian, dokumentu hau egin du, eta bertan, honako eduki hauek jaso dira: asmoen deklarazioa, zeregin horretan lan egitera bultzatzen gaituzten arrazoiak, politika horren oinarri diren printzipio orokorrak eta printzipio maristak, tratu txarrak prebenitzeko irizpideak eta jarraibideak, gai honetan bere obretako batean sor daitezkeen gatazkak konpontzeko protokoloak, edo Probintziako kideren bati dagozkionak, eta politika horiek elaboratzeko eta ebaluatzeko erreferentzia izan behar duten estandarrak.

Dokumentu hau adingabeekin zerikusia duten pertsona guztiei zuzenduta dago, bai eskolan bertan garatutako hezkuntza-zereginetan, bai ikastetxeak sustatutako jardueretan, bai gure obra bakoitzak behar bezala funtzionatzeko behar diren edozein ekintzatan, bai eta familiei

ere. Gure konpromisoa da prebentzio- eta jarduera-politika hori hezkuntza-komunitateetan zabaltzea, gure obra guzti-guztietan sentsibilizazio-prozesu bat gauzatuz. Adingabeen eskubideak babesteko beharrari buruzko sentsibilizazio horren barruan sartzen dira adingabeak, politika horien subjektuak baitira, beren osotasun pertsonala arriskuan jar dezakeen edozein jokabide prebenitzea eta zuzentzea helburu hartuta.

Dokumentu honetan jarduteko irizpideak ezarri dira, eta horietan deskribatzen da lortu behar den oinarrizko lorpen-maila, gure jarduera eraginkorra izan dadin adingabeen babesari dagokionez. Jarduteko irizpideetan, gainera, kontuan hartu beharko dira tokiko errealitatea eta Autonomia-erkidego bakoitzaren araudi espezifikoa, adingabeen tratuari eta babesari dagokionez.

Adingabeak babesteko politika honen hedapen eta aplikazioaren bidez, helburu nagusi hauek lortzea espero dugu: helduak eta adingabeak pertsona bakoitzaren eskubide indibidualak errespetatzeko beharraz sentsibilizatzea, bereziki adingabea bada; tratatu txar edo abusu kasuak gertatzeko arriskua minimizatzea; adingabeei dagokienez jarduteko irizpide argiak helduei ematea; jarduteko tresnak eta protokoloak ezartzea gerta litezkeen abusu edo tratatu txar kasuak konpontzeko; eta babes instituzionalaren maila egokia lortzea haurren eskubideen defentsarekin eta babesarekin dugun konpromisoaren bidez, prebentzioari garrantzi berezia emanda.

Azkenik, Erakunde marista gisa, beste erakunde batzuek adingabeen eskubideen defentsaren alde egindako ahalegina ere aitortzen dugu, eta bat egiten dugu eskubide horiek gure inguruneetan errespetatu daitezkeen lortzeko guztion ahaleginarekin.

2. Probintziaren deskribapena

Euskadi, Nafarroa, Errioxa, Aragoi, Gaztela-Mantxa eta Madril autonomia-erkidegoak dira Espainian Ibérica probintzia maristari dagokion eremu geografikoa, Cáceres probintziaren batera. Errumaniako misioa ere Ibérica Probintziari dagokio.

Ibérica Probintzian hezkuntza formaleko hamabost zentro daude. Durangoko ikastetxeak Batxilergoa eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak eskaintzen ditu. Durangon, Zallan eta Villalban ikasle-taldeak daude Oinarrizko Lanbide Heziketako programetan (OLH). Bilbo, Erandio, Guadalajara, Logroño, Madril Chamberí, Madril San José del Parque, Naval Moral de la Mata, Sarriguren, Talavera de la Reina, Toledo, Villalba, Zalla eta Zaragozako ikastetxeak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH-ko zentro integratuak dira eta –horietako zortzitan– Batxilergoa ere eskaintzen da. Alcalá de Henaresko zentroa unibertsitate-formakuntzakoa da eta bertan Irakasletza, Gizarte Hezkuntza, Psikologia eta beste irakaskuntza batzuetako graduak ematen dira. Obra horietatik, Erandiokoa fundazio-motakoa da, eta Maristak dira kudeaketaren arduradunak.

Bestalde, Ibérica Probintziak esku-hartze sozialerako bi zentro ditu, Fuenlabradan, Madrilgo Humanesen, Madril hiriburuan, Alcalá de Henaresen eta Erandion proiektuak dituztenak. Gizarte-obra horiek adingabeen, gazteen eta haien familien kalteberatasun-, arrisku- edo gizarte-bazterketako eremu eta egoeretan jarduten dute.

Ibéricaren presentzia Errumanian, Bukaresten dauden bi proiektu sozialetan egituratzen da. Horietako bat harrera-zentroa da. Eta bertan, lau etxetan banatuta, hogeita hamar edo berrogei adingabe inguru bizi dira beren hezitzaileekin. Bestea eguneko zentro bat da. Haren hartzaileak premia-egoeran dauden inguruneke adingabeak dira, eta han eskola-laguntza eta osasun- eta hezkuntza-arreta jasotzen dituzte.

Ibérica Probintziako geografiaren barruan, bederatzi etxe eta egoitza ere badaude, eta horietan haur eta gazteentzako jarduerak eta mota askotako topaketak egiten dira. Horien helburua da gure misioaren agente eta hartzaileen prestakuntza eta giza- eta kristau-hazkundera. Etxe horietan antolatzen diren jarduera gehienak oporraldietan edo asteburuetan garatzen dira. Era berean, gure ikastetxeetako haur eta nerabeekin tutoretza-elkarraldiak egiten dira eskola-garaietan.

Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko hogeita hiru zentroyen kopuruak batuz gero, gaur egungo datuak, gutxi gorabehera, honako hauek dira: 1.200 hezitzaile, 430 gizarte-obretako hezkuntza ez-formaleko programetan, eta 16.000 ikasle inguru 653 ikasgelatan.

Bestalde, gure ikastetxeetako eta gizarte-obretako ikasle askok jarduera osagarrietan parte hartzen dute. 4.000 baino gehiagok parte hartzen dute kirol-jardueretan, eta 1.800 inguruk fedea hazteko taldeetan (MARCHA taldeak), 300 animatzailek baino gehiagok lagunduta. Ikasturtean zehar, une esanguratsuagoak daude, eta horrelako prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten adingabeen kopurua handitzen da, adibidez, udako oporraldian eta Pazkoan.

3. Deklarazio instituzionala eta printzipio orokorrak

IBÉRICA PROBINTZIA MARISTAREN MISIOA¹

1. Gure misioaren helburu nagusia ebanjelizazioa da. San Martzelino Champagnat-ek hasitako hezkuntza-proiektu baten oinardekoak gara. Proiektu horren xedea "Jesukristo ezagutaraztea eta maitaraztea" da.
2. San Martzelino Champagnat-en espirituari jarraituz, haur eta gazte behartsuenak dira gure misioaren hartzaile gogokoenak.
3. Gure hezkuntza-obrek, Elizaren ebanjelizazio-misioan parte hartuz, haurren eta gazteen hezkuntza integrala sustatzea dute helburu, fedea, kultura eta bizitza harmonizatuz, pertsonaren garapenari dimentsio guztietan arreta ipinita.
4. Haur eta gazte guztiak, bereizketarik gabe, eskubideen subjektuak direla aitortzen duen hezkuntzaren alde gaude, babeserako eskubidea barne, eta eskubide horiek onartu eta errespetatuak izan daitezen lan egiten dugu.
5. Hezkuntzaren bidez, gizartearen eraldaketa bilatzen dugu, haurrengan eta gazteengan zentzu kritikoa, erantzukizuna, errespetua, askatasuna, parte-hartzea sustatuz, eta gizarte justuagoa eta solidarioagoa lortzeko inplikazioa bultzatuz.

IKUSPEGIA

1. Gure hezkuntza-obrak ingurunean erreferentzia izan daitezen lortzea, beren ebanjelizazio-dimentsioagatik eta haur eta gazteei fedearen hazkunde-prozesuan laguntzeko duten gaitasunagatik.
2. Gure hezkuntza-obrek arreta ematen dieten haur eta gazteen hezkuntza integrala bermatuko duen hezkuntza-proiektu bat izan dezaten lortzea, ikasleak gizartea eraldatzeko agente izan daitezen prestatuz.
3. Gure hezkuntza-obra guztietan premia handienak dituzten haur eta gazteei lehentasuna ematea, eta egoera ahulean dauden haur eta gazteei zuzendutako hezkuntza-proiektuen garapenean aurrera egitea.
4. Gure obrak beren ingurunean bereiz daitezen lortzea, adingabeen babesa bermatzen duten estandarrik gorenak betetzeagatik, haien kudeaketaren kalitateagatik eta gizartearen errealitate aldakorrari erantzuten dioten berrikuntza-proiektuak garatzeagatik.
5. Gure obretan nortasun marista bermatzea, agente ezberdinei Karisma ezagutzen eta asimilatzen lagunduz eta bizitza marista berria sustatuz.
6. Obrak kudeatzeko sistema batean aurrera egitea, probintzia-batasunaren eta baterako misioaren irizpideetatik abiatuta.

¹ Hezkuntza-proiektu marista. Gure garaiko hezkuntza. (Ibérica probintzia marista)

BALIOAK

1. Ebanjelioan sinesten dugu gure hezkuntza-estiloaren inspirazio-iturri eta transmititu nahi ditugun balioen nukleo integratzaile gisa. Bere indar eraldatzailean ere sinesten dugu.
2. Aitortzen dugu hezkuntza-estilo propioa eta pedagogia maristaren ezaugarri ongi definituak daudela, gure obretan bizirik irautea nahi ditugunak: hezitzailearen presentzia hurbila, sinpletasuna, lanarekiko maitasuna, familia-espirtua eta Mariarenganako maitasuna, Ama ona bait da.
3. Hezkuntza-komunitatean sinesten dugu, esparru horretan garatzen bait dira guztion parte-hartzea, talde-lana, familiak hezkuntza-zereginetan duten erantzunkidetasuna, premia handiena dutenei arreta ematea, ingurune seguruak eta tratu onekoak sortzea, gizartea eraldatzeko konpromisoa hartzea eta fedea ospatu eta adieraztea.
4. Gure gizartean sortzen ari diren eta gure Hezkuntza-proiektu instituzionalean agertzen diren balioekin identifikatzen gara, esate baterako, komunikazioa, elkartasuna, kulturartekotasuna, ekologia eta espiritualtasun-egarria.
5. Parte-hartzea, erantzunkidetasuna, pertsonen garapena eta berrikuntza-gaitasuna bultzatzen dituen kudeaketa-eredu batean sinesten dugu.

3.1. Deklarazio instituzionala

Ibérica probintzia marista osatzen duten hainbat presentziantan eta hezkuntza- eta gizarte-obretan inplikaturik gauden guztiok:

- 1.- Konpromisoa hartzen dugu adingabeen ongizatea sustatzeko behar diren neurri guztiak hartzeko, batez ere beren eskubideak eskuratzeko aukerarik ez dutenak, kalte, esplotazio eta abusu orotatik babestuz eta haien eskubideak defendatuz. Gure gain hartzen dugun konpromiso hori haurtzarora maitasunez, errespetuz eta modu ekitatiboan tratatzea merezi duen funtsezko uste sendotik sortzen da. Adingabeen duintasuna, pertsonak direlako, bortxazina da. Haien segurtasuna eta babesa izango dira beti gure lehentasun gorena.
- 2.- Eta, gogo berriarekin, bultzatuta sentitzen gara lankidetzaren sareetan elkartuta lan egitera, haurrek gai horietan dagokien informaziorako sarbidea hobetzeko, eskubide horien subjektu direla kontzientzia har dezaten laguntzeko eta gure erakundearen barruan eragiten dieten politiketan parte-hartze esanguratsua izatea bermatuko dizkieten metodo eta tresnak prestatzeko.

3.2. Politika honen oinarri diren printzipio orokorrak

a) Ebanjelioa

Jesusek berak, Ebanjelioan, haurrak eredu gisa proposatzen ditu Erreinuko partaide izan nahi dutenentzat:

“Haurrak eraman zizkioten Jesusi, uki zitzan; dizipuluek, berriz, haserre egiten zieten. Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen, eta esan «Utzi hurrei niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek bait dute Jainkoa errege. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko». Eta haurtxoak magalean hartu eta bedeinkatu egiten zituen, eskuak ezarriz”. (Mk 10, 13-16)

Jesusek adierazten du ume horietako bati egindakoa berari egiten diogula:

“Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten”. (Mt 25,40)

Eta gogor gaitzesten ditu ume horietako bat eskandalizatzerara iristen direnak:

“Hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora botako balute, txiki hauetakoren bat galbidean jartzea baino”. (Lk 17,2)

b) Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena (HEH – Nazio Batuak, 1989)

Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenak adingabe guztien eskubideak finkatzen ditu. Konbentzio hori ia munduko herrialde guztiek berretsi dute, eta haien onarpena eta babesa jaso du. Guk haur guztien eskubideak defendatzeko konpromisoa berresten dugu, batez ere gure Probintzietako apostolutza-eremuetan zaintzapean ditugunak.

Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena gobernuei zuzenduta badago ere, herriaren ordezkari gisa, berez, gizarteko kide guztien erantzukizunei dagokie. Oro har, arau horiek errealitate bihur daitezke soilik mundu guztiak errespetatzen dituenean (gurasoek, familiako eta komunitateko kideek, profesionalek, eta eskoletan, beste erakunde publiko eta pribatu batzuetan, haurren zerbitzuan, epaitegietan eta gobernuko maila guztietan diharduten pertsonak) eta guztiek beren eginkizunak arau horiei erreferentzia eginez betetzen dituztenean.

Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenak adingabeak kalte edo abusu ororen aurka babesteari egiten dio erreferentzia, honela:

Estatu alderdiek legegintza-, administrazio-, gizarte- eta hezkuntza-neurri egoki guztiak hartuko dituzte [...], haurren zaintza dagoenean gurasoen, lege-ordezkari baten edo haur horiek ardurapean dituen beste edozein pertsonaren mende. Babes-neurri horiek bere baitara bildu beharko lituzkete, egoki denaren arabera, prozedura eragingarriak, gizarte-programak ezar daitezzen, hurrei eta haurrak zaintzen dituztenei eskaintzeko behar adinako laguntza, bai eta bestelako prebentzio mota batzuk ezar daitezzen ere, eta, berebat, hurrei dagokienez, arestian aipatu tratatu txarren kasuak daudenean, halakoak identifikatu, jakinarazi, erakunde baten esku utzi, ikertu, tratatu eta begiratu daitezzen, eta, egoki denaren arabera, esku-hartze judiziala izan dadin

19. artikulua – Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, Estatu Batuak (HEH).

lido beretik, Europan, "Hautzarorako eta haurtzaroarekin Europa bat eraikitzea" programak, besteak beste, haurrak etxean, seguru eta zoriontsu sentitzeko espazio bat sortzera bultzatzen gaitu.

c) Elizaren doktrina

Elizaren doktrina sozialak etengabe adierazten du haurren duintasuna errespetatzeko eskakizuna, eta haien eskubideen alde aktiboki lan egitera animatzen du.

Familian, pertsonen komunitatea delarik, oso arreta berezia eskaini behar zaio haurrari, bere duintasun pertsonalarekiko estimu sakona garatuz, bai eta errespetu handia eta haren eskubideekiko zerbitzu eskuzabala ere. Horrek ume ororentzat balio du, baina premia berezia hartzen du haurra txikia denean eta denetarik behar duenean, gaixorik dagoenean, delikatua edo elbarria denean.

Haurren eskubideak ordenamendu juridikoek babestu behar dituzte. Beharrezkoa da, batez ere, herrialde guztietan haurren gizarte-balioa publikoki aitortzea.

Munduko haur gehienen egoera ez da oso ona, garapen integrala errazten duen baldintzarik ez dagoelako, nahiz eta haurren eskubideak babesteko nazioarteko tresna juridiko espezifikiko bat egon, nazioarteko komunitateko ia kide guztiek berretsia. Ezinbestekoa da, nazio eta nazioarte mailan, sexu-esplotazioak eta pedofilian aritzen diren pertsonak eta mota guztietako indarkeriek eragindako haurren duintasun-urraketari aurre egitea, haurrak gizaki babesgabeenak baitira. Delitu-egintzak dira, eta modu eraginkorrean aurre egin behar zaie prebentzio- eta zigor-neurri egokiekin, hainbat agintariren ekintza irmoaren bidez.

(Elizaren Doktrina Sozialaren Laburbilduma. "Justizia eta bakea" Kontseilu Pontifizioa, 244 eta 245)

Frantzisko Aita Santuak, 2018ko abuztuaren 20ko gutunean, dei bat egin zuen Elizaren eremuetan adingabeei egindako sexu-abusuak gaitzesteko eta irmotasunez jorratzeko.

"Vos estis lux mundi" (Zuek zarete munduaren argia) "Motu proprio" itxurako karta apostolikoan, " Frantzisko Aita Santuak behin eta berriz honako hau dio:

Erlijioso bizitzaren Institutu bateko kide batek, apaiz batek edo erlijioso bizitzaren institutuko beste kide batek Dekalogoaren seigarren aginduaren aurkako delituak egin dituela uste izateko berri edo oinarritzko arrazoiak dituenean, gertaeren lekuko Gotzainari lehenbailehen jakinarazteko betebeharra du. Delitu horiek honako hauek dira: i) norbait, indarkeriaz edo mehatxuz edo agintekeriaz, sexu-ekintzak egitera edo sufritzera behartzea; ii) adingabe batekin edo pertsona kaltebera batekin sexu-ekintzak egitea; iii) haur-material pornografikoa ekoiztea, erakustea, edukitzea edo banatzea, bai eta bide telematikoz ere, eta adingabe bat edo pertsona kaltebera bat giltzapetzea edota erakustaldi pornografikoetan parte hartzera bultzatzea.

d) Printzipio maristak

Martzelino Champagnat-en jarraibidea

Martzelino Champagnat haurra zela esperientzia bat bizi izan zuen sakonki markatu zuena. Maisu batek eskolako haur batekin indarkeria erabiltzeak handik aldentzea eta gehiago ez itzultzea eragin zion: "Mutil horri arrazoirik gabe aplikatu dion zigorrak aditzera eman dit zer espero dezakedan beragandik. Beraz, ez dut bere leziorik nahi, ezta bere zigorrik ere". Gurasoek eskatuta ere, uko egin zion eskolara itzultzeari. (Vida, I. or. 5-6)

Laster erakutsi zuen hezitzaile bikaina zela, herrikkako neska-mutilak elkartuz erlijioaren printzipioetan hezteko (Vida, III, 24. or.), eta prestatzen ari zen hezitzaileei irakatsi zien hezkuntzari buruzko bere kontzepzioaren ideia nagusia: "Haurrak hezteko, maitatu egin behar dira, eta denak berdin maitatu"(Vida, XXIII. kapitulua, 550. or.).

Erreferentziatzko dokumentu instituzionalak

Hezkuntza-misio marista (1998) haur eta gazteen artean egoteko modua inspiratzen digun dokumentu instituzionala da. Bertan, ikasle ahulenei eta babesgabeenei arreta berezia eskaintzeko konpromisoa berresten da: "Hezkuntza-plangintza aurrera eramatean, ikasle ahulenei eta kalteberenei arreta berezia eskaintzen diegu" (132). "Beren gatazkak indarkeriarik gabe konpontzen ikas dezaten hezten ditugu" (203). Era berean, etengabeko prestakuntza alde batera ez uzteko eskatzen zaigu, hain beharrezkoa bait da muturreko pobreak, abusuak eta esperientzia traumatikoek markatuta dauden gazteekin lan egiteko. (cfr. 207)

Mendesko Adierazpenean (2007), Misio Maristaren 1. Nazioarteko Batzarraren amaieran, haurren eskubideen defentsa eta sustapena Elizaren doktrina sozialaren printzipioetan oinarrituta egotea eskatzen zaigu, gure ekintzak, egiturak, politikak eta portaerak bideratuz (5.1). Halaber, giza eskubideak sustatzera gonbidatzen gaituzte, ebanjelioan inspiratutako hezkuntza marista kritiko, integral eta solidario baten bidez, gure obra eta proiektu sozial guztietan (5.2), eta eskatzen digute haurrak eta gazteak zapaltzen dituzten egitura sozialak, ekonomikoak, politikoak, kulturalak eta erlijiosoak ausardiaz salatzeke (5.3), gure bizitza pertsonal, komunitario eta instituzionalarekin eskubideen defentsaren lekuko izanik. (5.4).

XIX. Kapitulua Jeneralak (1993) arrisku-egoeran dauden gazteen beharrei erantzuteko deia egiten digu: *Gure gizarteetako "mugetan" dauden haur eta gazte baztertuen artean presentzia handiagoa izateko konpromisoa hartzen dugu. Arrisku-egoeran dauden gazteengandik datozkigun premiazko deiei erantzuten*

diegu: kaleko haurrak, drogaren edo indarkeriaren biktimak ... (XIX. Kapitulu Jenerala – Gure misioa, 33)

XXI. Kapitulu Jeneralak (2009) haur eta gazte pobreen artean presentzia esanguratsua mantentzera presatzen gaitu. Maria eta Joseren irudia proposatzen digu, Egiptora azkar ihes eginez Jesus haurra babesteko, foro publikoetan haurren eta gazteen eskubideen aldeko aditu eta defendatzaile ausart eta profetiko bihurtzeko inspirazio gisa, bai eta haur eta gazteak zapaltzen dituzten politika sozial, ekonomiko, kultural eta erlijiosoei aurre egiteko bultzada legez ere. (XXI. Kapitulu Jeneralaren aktak, 55. or.)

XXII. Kapitulu Jeneralak (2017), "Abusuzko biktimei eta abusutik bizirik atera zirenei zuzendutako adierazpena" argitaratu zuen. Bertan, honako hau esaten zaigu: *Guk, Anaia Maristen XXII. Kapitulu Jeneralean parte hartzen dugunok, Institutuko ohiz-kanpoko agintaritzak gorenaren izanik, Frantzisko Aita Santuarekin eta haurren eskubideak sustatzen eta defendatzen dituzten Nazioarteko Erakundeekin bat egiten dugu, haur eta gazteei edozein abusu mota (emozionala, fisikoa edo sexuala) gaitzesteko.*

Dokumentu berean, Anaia Emili Turú Nagusi jeneral irtenaren diskurtsoaren hitzak jasotzen dira: *Biktimen existentzia erakunde gisa huts egin genien oroitzapen iraunkorra da. Eta hala bazen iraganean, ezin diegu berriro huts egin, inola ere ez.*

Adierazpena honela amaitzen da: *Gure Kapitulu Jenerala bukatzean, proaktiboak izateko konpromisoa hartzen dugu, Institutu Marista, maila guztietan, haurren babeserako estandar altuenetara egokitzen dela ziurtatzeko, gure obra guztiak haurrak seguru eta gustura sentitzeko lekuak izan daitezen.*²

3.3. Probintzia marista guztietarako amankomunezko printzipio eta jarraibide instituzionalak

Jarraian, Anaia Maristek haurrak babesteko politika definitzen duten funtsezko printzipioak azaltzen dira. Printzipio eta gidalerro horiek bat datoz Ebanjelioarekin, Elizan dugun misioarekin eta gure konpromiso profesionalarekin.

- a. Anaia Maristen Erakundearen lehen erantzukizuna da adingabeentzako giro seguruak sortzea eta edozein motatako eraso edo abusutik haiek babestea.
- b. Haurrak eta gazteak hezteko misioan inplikaturik gauden guztiok haien zaintza eta segurtasuna jabetzeko erantzukizuna, zeregina eta betebeharra dugu, baita edozein tratatu txar edo abusuren aurrean haiek babestekoa ere.

² http://old.champagnat.org/shared/bau/CapituloGeneral_VitimasAbuso_ES.pdf

- c. Ezinbestekoa da Probintzia bakoitzak haurren babeserako politika idatzia izatea, eta politika hori, aldi berean, Nagusi Jeneralak eta bere Kontseiluak onartu behar dute.
- d. Adingabeak babestea eta edozein motatako tratu txarrak prebenitzea, neurri handi batean, Probintzia osatzen dugunon heziketa egoki eta zabalaren mende dago.
- e. Adingabeen babesa eta Haurren Eskubideekiko sentsibilizazioa Prestakuntza Maristaren parte dira.
- f. Adingabe guztiek eskubide bera dute abusu eta tratu txarren aurka babestuta egoteko. Abusua edo tratu txarra jasaten ari dela susmatzen den edozein adingaberen alde jokatu behar dugu, sexua, adina, jatorri etnikoa, erlijioa, sexu-orientazioa, gaitasuna, nagusi den kultura edo beste edozein baldintza izanda ere.
- g. Ezer baino gehiago, edozein abusu edo tratu txarren biktima izan dela dioen edonori arretaz entzun behar diogu, erantzun errukiorra eta bidezkoa eman. Erakunde Maristaren ardura da biktima eta haren familia artatzea.
- h. Abusua edo tratu txarra leporatu zaion hezkuntza-komunitateko edozein kidek errugabetasun-presuntziorako eskubidea du, kondena irmorik ez duen bitartean, eta, era berean, tratu errukiorra merezi du.
- i. Zintzotasunak eta gardentasunak gure ekintza guztiak ezaugarritu behar dituzte.
- j. Ikerketa independente bat egin behar da abusu edo tratu txarren akusazio bakoitzerako.
- k. Institutuko probintzia bakoitzak bere herrialdeko edo herrialdeetako legeriari men egin behar dio, abusu-akusazioei buruzko informazioa eman behar du, eta agintari zibilekin eta eliztarrekin lankidetza osoa eta azkarra izan behar du.
- l. Abusu-akusazioa jasoz gero, akusatuak adingabeekiko harremanetik urrun egon beharko du ikerketa independentea amaitu arte, akusazioak funtsik ez duela agerikoa denean izan ezik.
- m. Abusu-akusazio batekin lotutako prozesu batean erabateko konfidentziasuna bermatu behar da.
- n. Adingabe baten abusua onartu duen edo horren errudun aurkitu den edozein hezitzaile (kontratatua zein boluntarioa) berehala urrundu edo egotzi beharko da ikastetxean betetzen duen lanpostutik, eta ezin izango du lagundu hurrek edo gazteek parte hartzen duten jardueretan.

4. Ibérica probintzia maristaren konpromisoa

Erakunde Marista umeei eta gazteei zerbitzu emateko asmoz sortu zen, batez ere arretarik gutxien dutenei, arraza, kredo edo kondizioagatik inolako bereizketarik egin gabe.

Gaur egun, haurren eta nerabeen segurtasuna eta eskubideen babesa zaintzeak etorkizunean gizarte zoriontsuago eta askeago bat eraikitzen laguntzea dakar. Esplotazioaren biktima inor izango ez den eta pertsona guztien eskubideak errespetatuko diren gizarte bat.

Horregatik, eta gure hezkuntza-misioa gidatzen duten printzipio eta balioekin bat etorriz, irmoki atxikitzen gatzazkie Anaia Maristek adingabeen eskubideen alde aldarrikatutako politika instituzionalei, Haurren Eskubideen Hitzarmenean oinarrituta. Era berean, betidanik garatu ditugun eskubide horien defentsa-lana indartu nahi dugu, eta Ibérica probintzia maristan beharrezko mekanismoak ezartzen ditugu gure hezkuntza-obretan artatzen ditugun haurren eta gazteen segurtasuna zaintzeko, haien sexua, adina, jatorri etnikoa, erlijioa, sexu-orientazioa edo gaitasunak edozein direla ere.

Zeregin hori gauzatzeko, prebentzio- eta adingabeen babes-politika hauek zabaldu nahi ditugu. Politika instituzional horiek prebentzio-ekintzak eta protokoloak dituzte, eta horiek aplikatuko dira abusuen susmoa badago edo hezten ditugun haur eta nerabeen eskubideei kalte egin diezaieketen ekintzak badaude. Halaber, gure esku dauden baliabide guztiak erabiltzeko konpromisoa hartzen dugu, eragindako kaltea konpontzeko behar den laguntza biktimen zerbitzura jartzeko.

Jardunbide Egokien Kode bat dago, gure zentroetan lan egiten duten pertsona guztiek (anaia maristek, irakasleek, AZPek, aisialdiko eta jarduera pastoraletako monitoreek eta boluntarioek) betetzeko konpromisoa hartzen dutena. Hori egin ezean, hutsegitearen larritasunarekin bat datozen zehapenak jasoko dituzte, eta zehapen horiek zentroetako Barne Araubideko Erregelamenduan eta Langileen Estatutuan ezarrita daude.


Horretarako, Ibérica probintzia maristak probintzia- eta toki-eremuak hartuko dituen egitura bat izango du, haur eta nerabe guztiak babesteko.

Anaia Probintzialak Kontseilu Probintzialarekin batera, Ibérica probintzia maristaren arduradun nagusiak direnez gero, politika horiek onartzen dituzte, eta probintziako zentroetan politika horiek ezartzeaz eta sustatzeaz arduratzen dira.

Lardero, 2020ko uztailaren 9a.

5. Probintzia-organigrama: erantzukizunak eta eginkizunak

Proposatutako helburuak lortzeko, Ibérica probintzia maristak antolaketa-egitura bat ezarri du, eta egitura horretan erantzukizunak, eginkizunak eta zereginak esleitzen zaizkie adingabeen babesa beren hezkuntza-lan guzti-guztietan errealitate izan dadin zaindu behar duten pertsonari. Egitura horrek pertsona bakarreko eta kide anitzeko organoak izatea aurreikusten du, bai toki- bai probintzia-mailan.



Eginkizunak eta zereginak

Anaia Probintziala eta bere Kontseilua

- Ibérica Probintziako obretan eta misioan adingabeak babesteko politiken azken erantzuleak dira, eta, hala izanik, politika horien garapena eta betetzea bultzatzen eta bermatzen dituzte.

Adingabeen babeserako probintzia-ordezkaria (ABPO)

- Anaia Probintzialak eta bere Kontseiluak izendatzen dute ABPO
- Honek, Anaia Probintzialak eskuordetutako pertsona gisa, ondoko misio hau du:
 - Gure zentroetan adingabeen tratu txarra/abusua prebenitzen duten eta tratu ona sustatzen duten alderdiak indartzea.
 - Adingabeen abusuari buruzko salaketak hartzea eta horiei erantzuna ematea. Berak adingabeak babesteko talde exekutiboari dei egingo dio, egoerak hala eskatzen duenean, eta talde hori koordinatuko du planteatutako egoerari erantzuteko. Txostenak kasuan kasuko agintariei prestatzen dizkie, Anaia Probintzialarekin lotura gisa jarduten du, prozesuan zehar emandako urrats guztien datuak gordetzen ditu, eta ustezko biktimari, behar izanez gero, laguntza eskaini eta eman ahal izateko neurriak hartzen ditu.

Eginkizunak:

1. Adingabeen babesari buruzko probintzia-politiken hedapena eta ezagutza bultzatzea.
2. Adingabeak babestearen garrantziaz jabetzen lagunduko duten ekintzak bultzatzea.
3. Probintzia-politikak eta haien protokoloak betetzen direla zaintzea.
4. Toki-koordinatzaileek beren misioa betetzeko baliabideak dituztela ziurtatzea.
5. Toki-koordinatzaile guztien arteko lotura egitea.
6. Adingabeen babeserako probintzia-taldea koordinatzea.
7. Gure zentroetako adingabeek jasan ditzaketen tratu txarren kasuetan laguntzea.
8. Adingabeei egindako sexu-abusuen akusazioak eta salaketak entzun eta jasotzea, eta dagokion protokoloa abiaraztea.
9. Talde exekutiboaren jarduna deitu, koordinatu eta zuzentzea.
10. Anaia Probintzialari gertatzen diren kasuen berri ematea.
11. Abusu kasuetan biktimari laguntza eskaintzeko eta emateko behar diren neurriak hartzea.
12. Prozesuaren garapenean konfidentzialtasuna zaintzea.

Adingabeen babeserako probintzia- taldea (ABPT)

- Adingabeen babeserako probintzia-ordezkariari bere eginkizunak betetzen laguntzen dion taldea da. Probintzia-ordezkariak (ABPO) eta beste hiru pertsonak osatzen dute.

- Talde hau Anaia Probintzialak eta bere Kontseiluak izendatzen dute.

Eginkizunak:

Probintzia-Kontseiluak Adingabeen babeserako probintzia-taldearen esku uzten ditu ondoko eginkizun hauek:

1. Probintziako hezkuntza-obretan eta adingabeekin egiten diren jarduera guztietan, haientzat edozein eraso edo abusutatik babesteko giro segurua dagoela zaintzea.
2. Probintziako hezkuntza-obretan, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiek adingabea babesteko probintzia-politiken berri izan dezaten eta tratu txarren edo abusuen kasuan nola jokatu jakin dezaten zaintzea.
3. Gure hezkuntza-obretan adingabeekin harremana duten pertsona guztiek Jardunbide Egokien Kodea ezagutu eta eguneroko jardunean kontuan har dezaten zaintzea.
4. Probintziako hezkuntza-obretako agente guztiek jaso behar duten adingabeen babesari buruzko prestakuntza koordinatzea, Hezkuntza-Obren Kontseiluarekin hitz eginda eta Probintziako prestakuntza-planean ezarritako irizpideetatik abiatuta.
5. Probintziako hezkuntza-obretako ikasle guztiek "tratu onari" buruzko prestakuntza espezifikoa jasotzen dutela zaintzea, oro har, eta tratu txarrak edo sexu-abusuak prebenitzeari buruzkoa, bereziki.
6. "Adingabeen babeserako probintzia-politikak" toki-mailan garatzen direla bermatzea, obra bakoitzaren berezitasuna kontuan hartuta.
7. Adingabea babesteko probintzia-politikei buruzko dokumentua berrikustea eta Probintzia-Kontseiluari aurkeztea, hirurtekoan behin gutxienez onetsi dezan,
8. Probintzia-ordezkarari laguntzea Adingabeen babeserako probintzia-politikak betetzen diren aldizka ebaluatzeko prozesuan.
9. Toki- koordinatzaileei beren eginkizunak garatzen laguntzea.
10. Probintzia-Kontseiluak agintzen dion beste edozein eginkizun edo zeregin, bere jardun-eremuarekin barruan egonda.

Adingabeen babeserako talde exekutiboa (ABTE)

- Talde horrek, abusu-salaketa kasu bat ezagutu ondoren, beharrezko baliabideak mobilizatzen ditu ezarritako protokoloa bete dadin, tokiko arduradunei laguntzen die gatazka konpontzeko modurik onena ezartzeko, eragindako alderdi guztiei informazioa ematen die, prentsari arreta ematen dio beharrezkoa bada, eta, bereziki, biktimaren ongizateaz eta akusatuaren eskubideak errespetatzeaz arduratzen da.

- Adingabeen babeserako probintzia-ordezkariek, adingabeen babeserako probintzia-taldeko kide batek, zuzendari lokalak eta komunikazio-bulegoko arduradunak osatzen dute talde hori. Egoeraren arabera, Anaia Probintziala ere talde horretako kide izango da (akusatutako pertsona anaia bat bada), edo HOKEko koordinatzailea (akusatutako pertsona zentroko langile bat bada).

Eginkizunak:

1. Protokoloa garatzeko beharrezkoak diren baliabideak mobilizatzea, abusu-kasu bat jakinarazi ondoren.
2. Ustezko biktima babesteko behar diren neurriak hartzea.
3. Akusatuaren eskubideak errespetatzen direla zaintzea.
4. Kasua hobeto ezagutzeko informazioa biltzea.
5. Pertsonen eta erakundeen informazioa ematea, ezarrita ditugun protokoloen jarraituz.
6. Aholku ematea ea komeni den akusatua adingabeekin harremanetan ez egotea, egoera argitu arte.
7. Abusu-kasu batean inplikaturako alderdiei aholku ematea.
8. Behar izanez gero, komunikabideei arreta ematea.

Hezkuntza-Obren Kontseilua (HOK)

- Hezkuntza-Obren Kontseilua Ibérica probintzian ezarritako organoa da, eta Probintzia-Kontseiluak izendatzen du ikastetxeen kudeaketa eta animazioa lagundu eta koordinatzeko.

Eginkizunak:

Probintzia-Kontseiluak, besteak beste, honako eginkizun hauek eskuordetzen dizkio Hezkuntza-Obren Kontseiluari:

1. Titulartasunaren ohizko ordezkaritza gauzatzea hezkuntza-obretan.
2. Zuzendaritza-taldeetako kideak izendatzea.
3. Hezkuntza-obren aurrekontua onartzea eta aurrekontuaren kontrol ekonomikoa egitea.
4. Kontratazioei eta kontratuen iraungipenei oniritzia ematea.
5. "Adingabeen babeserako probintzia-politikak" hezkuntza-obretan betetzen direla bermatzea.

Adingabeak babesteko toki-koordinatzailea (ABTK)

- Toki-mailan, "Adingabeen babeserako probintzia-politikak" zabaltzeaz, politika horien ezarpenaren eta aplikazioaren jarraipena egiteaz, adingabea babestearen garrantziaz kontzientziatzen eta motibatzen lagunduko duten baliabideak bilatzeaz eta Adingabeak Babesteko Toki-Taldea koordinatzeaz arduratzen den pertsona da.
- Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak izendatzen du urtebeterako.

Eginkizunak:

1. ABTT deitzea eta koordinatzea.
2. Adingabeak babesteari buruzko probintzia-gidalerroak zentroan ezagutzen eta ezartzen direla ziurtatzea.
3. Adingabeen babesaren garrantziari buruzko kontzientzia eta sentsibiltatea sortzea.
4. Sentsibilizazio-jardueren jarraipena egitea ikastetxean bertan.
5. Zentroko pertsona guztiek adingabearen babesari buruzko prestakuntza izan dezaten jarraipena egitea.
6. Ikasleei/erabiltzaileei adingabearen babesari eta tratu onari buruzko prestakuntza bermatzea.
7. Gertatzen diren tratu txarren salaketak jasotzea (fisikoak, emozionalak, zabarkeriak eragindakoak eta berdinen artekoak), eta dagokion prozedura edo protokoloa abiaraztea.
8. Zentroaren eskuliburua eguneratuta izatea, Probintziatik datozen orientabideekin eta dagokion Autonomia-erkidegotik datorren araudi espezifikoarekin.
9. Zentroaren eskuliburuan markatutako jarraibideak betetzen direla zaintzea.
10. ABko probintzia-taldearen eskura izatea eskatzen zaion dokumentazioa eta informazioa.

Adingabeak babesteko toki-taldea (ABTT)

- Toki-mailan, adingabeak babesteko Koordinatzaile lokalari bere eginkizunak betetzen eta zentroan adingabeen aurkako tratu txarrei buruz sor daitezkeen egoerak konpontzen laguntzen dion taldea da.
- Zuzendaria, Orientatzailea eta Adingabeak babesteko toki- koordinatzailea izango dira ABTTko kide. Kasu jakin batzuk ebaztean, talde horretan beste bi pertsona sartu ahal izango dira, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera: Tutorea, Etaparen Koordinazioa, Pastoralaren Koordinazioa, Kirol-Koordinazioa, Bizikidetzaren Koordinazioa,

Hezkidetzaren Arduraduna... Ez da inolaz ere talde honetako kide izango kasuan zuzeneko inplikazio emozionala duen norbait (familiakoa, adiskidetasun-harremana, etab.)

- Talde horretako kideak Zuzendaritza-taldeak urtebeterako izendatzen ditu.

Eginkizunak:

1. Adingabeak babesteko toki-koordinatzaileari aholku eta laguntza ematea bere misioa betetzeko, bereziki zentroari lotutako pertsonen prestakuntzaren jarraipena eta animazioa egiteko, eta adingabearen eta tratu onaren babesarekin lotutako tutoretzei aholku emateko eta jarraipena egiteko.
2. Tratu txarren bat sortuz gero, Koordinatzaileari Informazioa bilatzen eta ebaluatzen laguntzea, kasuan kasuko protokoloetan ezarritako irizpideei jarraituz.
3. Edozein tratu txarren biktima izan diren adingabeei beharrezko baliabideak bermatzea kaltea lehengoratzeko eta haien garapen osasuntsua sustatzeko.
4. Ikastetxean Haurren Eskubideen aldeko sentsibilizazioa sustatzea, baita adingabe oro edozein tratu txar edo abusuren aurka babestea ere.

Errumaniako hezkuntza-obretarako

- Errumaniako hezkuntza-obretan, Probintziako gainerako obretan bezala, Toki-koordinatzaile bat eta Adingabeak babesteko toki-talde bat egongo dira. Obra horiek herrialde honetan horretarako ezarritako legeria, protokolo eta sistemen arabera jardun beharko dute.
- Balizko tratu txar edo abusu egoeraren bat sortuz gero, Talde exekutiboa honako hauek osatuko dute: Adingabeen babeserako probintzia-ordezkariek, Adingabeak babesteko toki-koordinatzaileak, Zentroko zuzendariak eta Komunikazio-bulegoko arduradunak. Egoera horietan, kontaktuan jarriko dira kabinete juridiko batekin eta tokiko prentsa-kabinete batekin.

6. Adingabearen babesa tratu txarren aurka

Haurren babesa erakundeek beren langileek, jarduerak eta programek haurrei kalterik egiten ez dietela ziurtatzeko duten erantzukizuna da, hau da, haurrak kaltea edo abusua jasateko arriskuan jartzen ez dituztela, eta erakundeak lan egiten duen ingurunean haurren segurtasunari buruz izan dezakeen edozein zalantzaren aurrean dagokien agintariei informazioa ematen zaiela.³

Haurren tratu txarra **arazo mundiala** da, eta haren ondorio larriek bizitza osoan zehar iraun dezakete. Nazioarteko azterlanetan⁴ ikusten denez, Europan haurren % 20k, gutxi gorabehera, tratu txarren bat jasaten dute. Europan, haurren % 9,6k sexu-abusua jasaten dute (mutikoen % 5,7k eta neskatuen % 13,4k), % 22,9k tratu txar fisikoa jasaten dute, % 29,1ek tratu txar emozionala eta % 34,7k zabarkeria.

Haurren tratu txarrak **sufrimendua eragiten die haurrei** eta familiei, eta ondorio larriak izan ditzake epe luzera: estresa eragiten du eta garuneko garapen goiztiarraren nahasmenduekin lotzen da. Hori dela eta, haurtzaroan tratu txarrak jasan dituzten helduek arrisku handiagoa dute jokaera-, gorputz- eta buru-arazoak izateko, hala nola indarkeria-ekintzak (biktima edo erasotzaile gisa), depresioa, tabakoaren, alkoholaren eta drogen kontsumo okerra, eta arrisku handiko sexu-portaerak.

Haurren tratu txarren **arrisku-faktoreak** identifikatu dira. Testuinguru sozial eta kultural guztietan agertzen ez badira ere, tratu txarren kausak ulertzeko aukera ematen duen ikuspegi orokorra eskaintzen dute. Ez da ahaztu behar haurrak biktimak direla, eta ezingo zaiela inoiz leporatu haiei ematen zaizkien tratu txarren errua. Hala ere, haurraren zenbait ezaugarri tratu txarrak jasateko probabilitatea areagotu dezakete: 4 urtetik beherako adina eta nerabezaroa, desiratuak ez izatea edo gurasoen itxaropenak ez betetzea, behar bereziak izatea, negar asko egitea edo ezaugarri fisiko atipikoak izatea.

Gurasoen edo zaintzaileen ezaugarri batzuek haurren tratu txarren arriskua areagotu dezakete, besteak beste: jaioberriarekin lotura afektiboak ezartzeko zailtasunak, haurra ez zaintzea, haurren tratu txarren aurrekari pertsonalak, haurren garapenari buruzko ezagutzarik eza edo itxaropen ez-errealistak, alkoholaren edo drogen kontsumo okerra (batez ere haurdunaldian), delitu-jardueretan parte hartzea, zailtasun ekonomikoak...

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena gobernuei zuzenduta badago ere, herriaren ordezkari gisa, egiaz **gizarteko kide guztien erantzukizunei** dagokie. Arau horiek errealitate bihurtzeko, soil-soilik, denek errespetatzen dituztenean (gurasoek, familiako eta komunitateko

³ Keeping Children Safe-k emandako Adingabeen babesaren definizioa

⁴ Osasunaren Mundu Erakundea (OME) Europako tratu txarren presentziari buruzko txostena, 2018

kideek, profesionalek eta eskoletan edo erakunde publiko eta pribatuetan, haurren zerbitzura, epaitegietan eta gobernuaren esparru guztietan lan egiten duten beste pertsona batzuek) eta guztiek beren eginkizunak arau horiei jarraituz betetzen dituztenean.

Atal honetan, haurren tratu txarrak zentzurik zabalenean aztertzen ditugu, tipologia bat, larritasun-maila batzuk baita balizko tratu txarren egoerak detektatzen lagun diezaguketen adierazle orokor batzuk ere.

6.1. Hurbilketa kontzeptuala – Haurren tratu txarren definizioa

“Ekintza, omisio edo tratu arduragabea, ez ustekabekoa, adingabeari bere eskubideak eta ongizatea kentzen dizkiona, bere garapen fisiko, psikiko edo soziala mehatxatzen edo eragozten duena, eta egileak pertsonak, erakundeak edo gizartea bera izan daitezkeenak”.⁵

6.2. Tratu txar motak

Tratu txar fisikoa

Ustekabekoa ez den edozein ekintza, adingabeari lesio fisikoak, gaixotasunak edo horiek izateko arriskua eragiten diona edo eragin diezaiokeena, hura babesteko zabarkeria barne.

Tratu txar emozionala

Jarrerak, ekintzak eta hitzezko etsaitasun iraunkorra, hala nola irainak, mespretxua, umiliazioak, deskalifikazioak, kritika edo bertan behera uztearen mehatxua, haurren interakzio-ekimenen etengabeko blokeoa (arretarik ezetik hasi itxialdira edo konfinamendura arte), interakzio sozialerako eta autonomia lortzeko aukeren gabetzea, edozein helduk eraginda.

Tratu txarrak zabarkeriagatik

Adingabearen oinarritzko premia fisiko, kognitibo eta emozionalen aurrean aldi baterako edo etengabeko axolagabekeria, bai eta zaintza- eta babes- betebeharrak ez betetzea ere.

Berdinen arteko tratu txarrak / bullying

Ikasleen arteko edozein motatako tratu txar psikologikoa, ahozkoa edo fisikoa, behin eta berriz gertatzen dena eta denboran zehar mantentzen dena, helduen begiradatik urrun eta biktima babesgabea umiliatzeko eta abusuz menderatzeko asmoz.

⁵ Haurren Behatokia 2008an

Berdinen arteko tratu txar mota orok, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz (mugikorreko mezuak, posta elektronikoa, sare sozialak, txat-a...), "**ziberbullying**" izena jasotzen du.

Sexu-abusua

Heldu baten eta adingabe baten arteko edozein sexu-kontaktu eta sexu-interakzio mota, non helduak adingabearen gaineko botere- edo agente-posizioa gauzatzen duen, adingabea bera erabiliz bere sexu-estimulaziorako, edo adingabea edo beste pertsona bat estimulatzeko. Abusu mota hori sarearen bidez egiten denean, "**grooming**" esaten zaio.

Sexu-abusua 18 urtetik beherako pertsona batek ere egin dezake, adingabea-biktima baino nabarmen handiagoa denean edo adingabearen gaineko botere- edo kontrol-egoeran dagoenean.

Heldu batek adingabe bat prostituziora bultzatzea ere tratu txar sexualtzat hartzen da, sexu-harremana hirugarrenekin mantentzen bada ere.

6.3. Larritasun mailak

Tratu txarren larritasuna definitzen duten irizpideak honako hauek dira: adierazleen maiztasuna eta intentsitatea, eta haurraren kalteberatasun-maila. Haurraren kalteberatasuna baloratzeko, honako faktore hauek ebaluatu behar dira: tratu txarren kronikotasuna eta maiztasuna, erasotzaileak adingabearengana duen sarbidea, haurraren ezaugarriak eta baldintzak, erasotzailearen eta haurraren arteko harremana, desgaitasunen-motaren bat dagoela, guraso edo zaintzaile nagusien ezaugarriak, adingabearen familia-ingurunearen ezaugarriak eta inoiz laguntzarik eskatu zen eta nori, eta noiz eta nola konpondu zen.⁶

- **Arina.** Badaude tratu txarren adierazle fisiko, psikologiko eta/edo sozialak, hezkuntzaz landu daitezkeenak. Premiarik gabeko egoera bat planteatzen dute, ikastetxean bertan eta/edo adingabearen gizarte- eta familia-ingurunean konpon daitekeena. Haurraren edo nerabearen garapen onari eragiten dioten hezkuntza-jarraibide okerrak detektatzea, hala nola gehiegizko zigorrak, eskolako gaietan arreta eta laguntza falta, tratu desegokia (barregarri uztea, beste batzuekin mespretxuz alderatzea, etab.).
- **Larria.** Haurraren edo nerabearen osotasun fisikoa edo psikikoa arriskuan ez dagoenean, baina tratu txarrak gertatzen ari direlako edo gerta daitezkeelako presuntzioa dagoenean, edo haren beharrak betetzen ari ez direla uste denean.

⁶ Haurren Behatokia 2008an.

- **Oso larria.** Tratu txarren adierazle fisikoak, psikologikoak eta/edo sozialak egotea, adingabearen osotasuna eta ongizatea arriskuan jartzen dituztenak. Egoera premiazkoa da.

6.4. Adierazleak

Tratu txarren adierazleak ez dira egiteak

Garrantzitsua da azpimarratzea adierazle bakar bat ere ez dela tratu txarren eztaba daezintzat hartu behar. Litekeena da seinale-talde edo seinale-patroi batek tratu txarren berri gehiago ematea. Tratu txarren edozein adierazle objektibotan oinarrituta ez dagoen susmoak ez dakar zentzuzko kezka-arrazoirik.

Tratu txarren zantzuak haurren gizarte- eta familia-testuinguruan ere ager daitezke. Bestalde, haurren tratu txarrak ez dira mugatzen talde sozioekonomiko, genero edo kultural jakin batera, baizik eta talde sozial guztietan gerta daiteke haurrari tratu txarra ematea. Garrantzitsua da beti tratu txarren adierazle izan daitezkeen zeinu fisiko edo jokabidezkoetarako azalpen alternatiboetara irekita egotea.

Tratu txar motaren baten adierazle generikoak

Jarraian, zenbait adierazle aurkeztuko ditugu, tratu txarren balizko kasuagatik kezkatzeko arrazoizkoak izan daitezkeenak:

- Adingabeak tratu txarren biktima izaten ari dela berariaz adieraztea.
- Adingabea tratu txarrak jasotzen ari zela ikusi zuen norbaiten bertsioa.
- Ustekabean gertatuak izateko probabilitate gutxiko lesio fisikoak.
- Aldaketa arraroak adingabearen portaeran.
- Justifikatu gabeko beldurra adieraztea eta/edo izu-erasoak.
- Jokabide oldarkorrak.
- Ihesak, etxetik maiz alde egitea.
- Autoestimu baxua.
- Lehen interesatzen zitzaizkion gauza eta/edo jardueretikiko interesik eza.
- Egoera depresiboa.
- Amesgaizto iraunkorrak, lo-asaldurak, enuresia.
- Malnutrizioaren eta abandonuaren zeinuak kanpo-itxurari dagokionez.
- Baztertze eta ez-onartze sentimenduak.

Tratu txar mota bakoitzaren adierazle espezifikoak dagozkien eranskinetan jasota daude.

6.5. Adingabearen babesa Ibérica Probintzian: sustapena, prebentzioa eta esku-hartzea

Ibérica probintzia maristan uste dugu adingabearen babesa gure printzipio instituzionaletatik eta Haurren Eskubideen Adierazpenetik eratorritako eskakizun apelaezina dela. Beraz, eskubide horiek sustatzea funtsezkoa da obra bakoitzean. Sustapen horrekin batera, funtsezkoak dira balizko tratu txar- edo abusu- egoerak prebenitzeko jarduerak, baita protokoloak eta jarduera-ildoak definitzea ere, tratu txarren kasu bat gertatzen denean erantzuteko.

1.- SUSTAPENA

Adingabeen, hezkuntza-agenteen eta gure ikastetxeetako ingurune soziokulturalaren artean Haurren Eskubideak sustatzea konpromiso nabarmena da gure Institutuan. Haurren Eskubideen aldeko lan horretatik abiatuta, Tratu Ona sustatzen dugu, denok, heldu zein adingabe, tratu oneko inguruneak sortzeko konpromisoa har dezagun.

2.- PREBENTZIOA

Gure ustez, funtsezkoa da prebentzio-lana, gure esku dagoenaren barruan, lan egiten dugun adingabeekin tratu txarrak eta abusuak gertatzeko aukera minimizatzeko.

3.- ESKU-HARTZEA

Ibérica Probintziako zentro guztiek prest egon behar dute artatzen ditugun adingabeetakoren batenganako tratu txarrik edo abusurik dagoen detektatzeko eta horren arabera jarduteko. Horretarako funtsezkoa iruditzen zaigu zentro bakoitzeko legeriarekin eta gidalerro autonomikoekin bat datozen jarduera-protokoloak izatea.

7. Haurren Eskubideak sustatzea

Haurren Eskubideak sustatzea eta Tratu Oneko praktikak eragitea funtsezkoak dira gure hezkuntza-zereginetan. Gure konpromiso instituzionala da eskubide horiek haur guztien artean defendatzea eta sustatzea, haien adina, arraza edo egoera edozein dela ere.

7.1. Lankideen prestakuntza

- Haurren Eskubideei buruzko prestakuntza: bai hezitzaile berrien hasierako prestakuntzan, bai zentroko gainerako langileekin, Haurren Eskubideak ezagutzeari, sustatzeari eta hedatzeari buruzko prestakuntza-ekintzak egiten dira.
- Tratu Oneko praktiketako prestakuntza: aurreko eduki-blokearekin bezala, aldi berean Tratu Oneko praktikei buruzko prestakuntzak egiten dira, probintzia-mailan hezitzaile berrientzat eta toki-mailan irakasle-klaustroentzat, adingabeekin lan egiteko erabil daitezkeenak. Era berean, gaitasunak garatzeko ikastaro bat dago, Tratu Onaren printzipioei eta horiek hezkuntza formalean eta ez-formalean aplikatzeari buruzkoa.

7.2. Adingabeen prestakuntza: Tutoretzak

Haurren Eskubideen ikuspegitik abiatuta eta adingabeak eskubideen subjektu gisa hartuta, prestakuntza- eta sustapen-ekintzak egiten dira gure zentroetako adingabeen artean:

- Haurren Eskubideen Astea: hezkuntza-maila guztietarako, eskubide horien ezagutza eta erabilera sustatzen duten material didaktiko eta ludikoekin.
- Tratu Oneko tutoretzak: hezkuntza-etapa guztietarako diseinatuta daude, eta tratu onaren printzipioak ezagutzera emateko eta esparru horren barruan ikastetxeetan jokabide- eta erantzunkidetasun-dekalogoak ezartzeko saioak egiten dira.

8. Tratu txarren prebentzioa

Erakundeak tratu txarrak prebenitzeko duen konpromisoa zehatz-mehatz islatzen da zentroetako jarduera hartzen duten eremu guzti-guztietan, hala nola adingabeekiko jarduera zuzentzen duten dokumentuetan, azpiegituren konfigurazioan, eguneroko zereginaren prozesu eta jardueretan, betiere gure obra bakoitzean egindako arriskuen ebaluaziotik abiatuta.

8.1. Ikastetxearen hezkuntza-proiektua

Ikastetxearen hezkuntza-proiektuek elkargo-bizitzako plan eta jarduera-eremu guztiak biltzen dituzte; horregatik, nahitaez tratu txarren prebentzio-lana eta adingabearen babesa kontuan hartu behar dituzte, gure ikasleen ongizatea, inolako bereizketarik gabe, errealitate izan dadin bermatzeko.

Era berean, gizarte-obrek nahitaez jaso beharko dute beren Esku-hartze Sozialeko eta Hezkuntza-ekintzako Proiektuan (ESHEP) adingabe guztien tratu txarren prebentzioa eta babesa, inolako bereizketarik gabe, beren jarduera guztien funtsezko osagai gisa.

8.2. Prozesu operatiboak eta kudeaketakoak

Adingabeak babesteko neurriek esplizituki integratuta egon behar dute Ibérica Probintziako obren prozesu operatiboetan eta kudeaketakoetan, hori egite maristaren funtsezko alderdia dela eta haren idearioaren oinarrizko ezaugarri bat dela bermatzeko. Prozesu horietan ezarritako prozedurak ikastetxe eta obra guztietan aplikatuko dira, adingabeentzako ingurune seguruak sortzeko.

8.3. Pertsonak hautatzea eta kontratatzea

Probintziako hezkuntza-obretako lana haur eta nerabeekin harremanetan egiten da; horregatik, funtsezkoa da hautaketa-prozesua zaintzea, aginduko zaien zereginerako pertsona egokiak aukeratzeko.

Adingabearen babes-esparrutik, beharrezkoa da Probintziako kontratazio-prozeduran kontuan hartzea hautagaiak Haurren Eskubideekiko duen sentsibilitatea eta errespetua erakusten duten adierazleak, bai eta adingabeen babesari ematen dion garrantzia ere.

8.4. Jardunbide egokien kodea

Egungo legeriak adingabe guztien ongizatearen printzipioa defendatzen du, helduen eta adingabeen arteko bizikidetzaren oinarritzko elementu gisa. Maristen Ibérica Probintziako erakunde eta instituzioek eskatzen dute misio maristan lan egiten duten edo boluntarioak diren eta adingabeekin zuzeneko edo zeharkako harremana duten pertsona guztiek jardunbide egokien kodea ezagutu eta beren gain har dezatela.

8.5. Prestakuntza

Instituzio- printzipio eta jarraibideetako batek dio adingabeak babestea eta edozein motatako tratu txarrak prebenitzea, neurri handi batean, Probintzia osatzen dugunon heziketa egoki eta zabalaren mende daudela.

Adingabeak babesteko kultura bat sortzeko dugun konpromisoan, "Probintziako prestakuntzaren esparru-dokumentuak" adingabearen babesarekin lotutako eduki espezifikoak dituzten prestakuntza-ekintzak jasotzen ditu.

8.5.a. Agenteen prestakuntza (irakasleak, irakasle ez direnak eta boluntarioak)

Hartzaileak

Agentetzat hartzen ditugu gure hezkuntza-obretan jardueraren bat garatzen duten eta, modu batera edo bestera, gure ardurapean dauden haurrekin eta gazteekin harremanetan jartzen diren pertsona guztiak.

Hezkuntza-ekintza adingabeekin izaten diren interakzio-eremu desberdinek, hezkuntza formalean zein ez-formalean (ikasgela, eskolaz kanpoko jarduerak eta aisialdiak, kirola, elkargo-zerbitzuak, pastoral jarduerak...), adingabeen babesarekin lotutako prestakuntza-ekintza zuzentzen zaion hezitzailearen profila askotarikoa izatea eragiten dute. Esate baterako, anaia maristak, hezitzaile laikoak, gizarte-obretako boluntarioak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak aurki ditzakegu, egunerokoan adingabeekin harreman estuagoa dutenak, bai eta kirol-monitoreak, taldeetako animatzaileak, eskolaz kanpoko jardueretako monitoreak etabar ere, harreman puntualagoa edo noizbehinkakoagoa dutenak. Horiek guztiak kontuan hartu behar ditugu gure prestakuntza-ekintzak programatzeko orduan.

Hezkuntza-agentek, funtsean, erreferentziazko eredua dira adingabeentzat, beraz, kontu handiz jokatu behar dute adingabeekin dituzten jarreretan eta portaeretan.

Helburuak:

1. Haurren Eskubideen Hitzarmena eta haren aplikazioak hezkuntza-agenteei ezagutaraztea, ekintza gauzatzen duten hezkuntza testuinguruan.
2. Hezkuntza-agentengan haurren eskubideen defentsaren eta adingabeen babesaren aldeko sentsibiltatea garatzea.
3. Adingabeen babesari buruzko probintzia-politikak bideratzen dituzten printzipioak hezkuntza-agenteei jakinaraztea bai eta gure obretan adingabeekin jardueraren bat egiten dutenek jarraitu behar dituzten jokabideak ere.
4. Adingabeentzako garapen positiboa eta tratu oneko inguruneak sustatzeko tresnak ematea.
5. Tratu txar mota desberdinei buruzko prestakuntza ematea, nola prebenitu, nola jokatu, eta norengana jo adingabe bat tratu txarrak edo abusuak jasaten ari delako susmoa edo ebidentzia izanez gero.

8.5.b. Adingabeen prestakuntza

Prozesu horretan guztian, adingabeak ez dira agente pasiboak, helduek haiek babesteko praktikan jartzen dituzten neurrien gerizpean. Haiek tratu txarren aurkako babesaren erantzunkideak dira bai eta beren ikaskideen babesarena ere. Horrek haien eskubideez jabetzea eskatzen du. Tratu txarren aurreko babesa ez da ematen zaien zerbait, baizik eta adingabe gisa duten eta aitortuta dagoen eskubide bat da. Halaber, babes hori nola gauzatu jakitea ere eskatzen du, eta aurki daitezkeen engainuak eta tranpak aurkitzea. Era berean, eskatzen du bestea aitortzea berak dituen eskubide horien edukitzaile gisa. Ezetz esateko gaitasuna izatea eskatzen du, bai eta bere konfiantzako norbaiti komunikatzeko ausardia ere, bere eskubideak urratu direnean edo hala izateko arriskuan daudenean. Hori guztia prestakuntza-prozesu baten bidez egingo dugu, batez ere tutoretza-ekintzaren bidez.

Hartzaileak

Gure zentroetako adingabeek, sexua, jatorri etnikoa, erlijioa, sexu-orientazioa edo egoera edozein direla ere, tratu txarren edo abusuaren babesari eta prebentzioari buruzko prestakuntza jasotzen dute, beren adinari eta gaitasunari egokituta.

Helburuak

1. Adingabeei Haurren Eskubideak eta horien inplikazioak ezagutaraztea.
2. Harreman-jarraibide asertiboak eta tratu onerako tresnak ematea.

3. Tratu txarrak detektatzeko eta horien aurrean babesteko trebetasunak ematea.
4. Haurren sexu-abusuaren aurrean, detekzio- eta babes-trebetasunak ematea.
5. Laguntza bilatzeko eta gauzak ezagutarazteko jarraibideak ematea, bai ikastetxean, bai ingurune hurbilean.

8.5.c. Familientzako prestakuntza

Tratu txarrak babesteko eta prebenitzeko prozesu horretan guztian, adingabeen familiek edo haien legezko tutoreek funtsezko eginkizuna dute. Familia-ingurunean sentitzen da adingabea, edo sentitu behar da, maiteago, onartuago, babestuago. Familia-ingurunean sentitu behar du adingabeak konfiantza gehien bere egoera pertsonalari, zailtasunei, arazoei eta jasaten ari den tratu txar edo abusu egoerei buruz hitz egiteko.

Beharrezkoa da adingabearen ingurune hurbilena Haurren Eskubideekiko sentibera izatea eta tratu txarrei edo abusuei aurre egin ahal izateko tresnak izatea.

Familiei baliabide horiek ematea, familiei prestakuntza emanez egingo dugu.

Hartzaileak

Gure zentroetako adingabeen guraso eta legezko tutore guztiak dira seme-alaben tratu txarrak edo abusuak babesteko eta prebenitzeko moduari buruzko prestakuntzaren hartzaileak.

Helburuak

1. Haurren eskubideak ezagutaraztea eta horiei buruz sentsibilizatzea.
2. Tratu oneko estrategiak eta tresnak erraztea.
3. Haurren tratu txar motak ezagutaraztea eta haiei buruz sentsibilizatzea.
4. Haurren tratu txarrak edo abusuak prebenitzeko, detektatzeko eta egoera horietan jarduteko gaitzea.

8.6. Egiturazko egokitzapenak gure instalazioetan

Ibérica probintzia maristak haur eta nerabe guztien tratu txarren aurrean babesteko duen konpromisoa azpiegiturak egokitzean ere islatzen da, gune "itsuak" edo tratu txarren emailearen eta biktimaren arteko topagune potentzialak minimizatzeko.

Oro har, Probintziako zentro guztiek egokitzapen hauek egin beharko dituzte:

- Adingabeentzat eta helduentzat esplizituki bereizitako komunak eta aldagelak. Hori bideraezina denean, batzuk eta besteak gune horretan bat ez datozela bermatzeko irizpideak ezarriko dira, edo prebentzio-kartelak jarriko dira.
- Adingabeak egon ohi diren ikasgelak eta aretoak, kanpotik ikusteko modukoak izango dira, hormetan edo sarrerako ateetan kristalen bidez. Hori bideragarria ez den geletan, arriskuak minimizatzeko jarraibideak ezarriko dira, hala nola bigarren heldu bat egotea edo atea irekita mantentzea.

8.7. Bestelako prebentzio-neurriak

Gaua ikastetxetik kanpo pasatzen den jardueretan, beste herrialde batzuetara irteeretan edo eskola-trukeetan ezarritako prebentzio-neurriak dira, bai eta eguneroko jardueretatik harago egiten diren jarduera guztietan ere.

9. Tratu txarren edo abusuen susmo edo ebidentziaren aurrean esku hartzea

Ibérica Probintziako zentro guztiek prest egon behar dute lanean dihardugun adingabeetakoren batekin tratu txarrak edo abusuak daudela susmatuz gero, detektatzeko eta esku hartzeko.

Horretarako, funtsezkotzat jotzen dugu jarduketa gidatuko duten protokoloak izatea, adingabe bat tratu txarrak edo abusuak jasaten ari den susmoa edo ziurtasuna dugunean.

9.1. Esku-hartzearen oinarri den Espainiako legeria

ESPAINIAKO KONSTITUZIOA (39.4 artikulua): *“... umeei nazio arteko akordioetan beraien eskubideen alde beilatzen den alde aurretik ikusitako babesaz gozatuko dute”*

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartua. (Espainiako Gobernuak 1990ean berretsia)

3. artikulua, 1. paragrafoa: “Gizarte-ongizateko erakunde pribatu nahiz publikoek haurrei buruz hartzen dituzten neurri guztietan haurren interesak lehentasun osoa izango du”.

19. artikulua: “Estatuak neurri guztiak hartuko ditu gurasoek edo zaintzeko erantzukizuna duten beste edozein pertsonak haurrari inolako kalte fisiko nahiz mental, zabarkeria, tratu txar edo gehiegikeriarik egin ez diezaioten”.

26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena. – Adingabearen interes gorena: *adingabearen oinarritzko premiak asetzea, haren nahiak, sentimenduak eta iritziak aintzat hartzea, edo adingabearen bizitza eta garapena indarkeriarik gabeko familia-ingurugune egoki batean egitean komeni den kontuan hartzea. Adingabearen interes gorena lehenetsi behar da interesa legitimoko beste edozeinen gainetik.*

ABJLOren 13. artikulua. – *“Pertsona edo agintari orok duen betebeharra, bereziki bere lanbideagatik edo funtzioagatik adingabe baten arrisku- edo desanparo-egoera hautematen dutenek, agintaritzari edo haren agente hurbilenei jakinarazteko, behar duen berehalako laguntza emateari kalterik egin gabe”.*

26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.- *“Edozein informazio-iturriren bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako, gizakien salerosketaren aurkako edo adingabeen esplotazioaren aurkako delituen baten berri duen pertsona orok Ministerio Fiskalari*

jakinarazi beharko dio, zigor-arloko legeria prozesalean xedatutakoari kalterik egin gabe”.

ABJLOren 17. artikulua.- “Arrisku-egoera: adingabearen garapen pertsonala edo soziala kaltetzen duena, baldin eta ez bada beharrezkoa lege-ministerioak tutoretza hartzea”.

KODE ZIBILA: 172. artikulua.- “Babesgabetasuna: Legeak adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak ez betetzea, ezinezkoa, modu desegokian betetzea”.

26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa: Lege honek urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, aldatzen du, eta, partzialki, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legea ere bai. Aldatzeak babesgabetasun-egoeraren definizioa osatzen du, eta haren deklarazioa zehazten duten inguruabarrak ezartzen ditu).

“Bereziki, babesgabetasun-egoera dagoela ulertuko da honako inguruabar hauetako bat edo batzuk behar adinako larritasunez gertatzen direnean, eta inguruabar horiek, premia eta proportzionaltasun-printzipioen arabera baloratuta eta haztatuta, adingabearen osotasun fisiko edo mentalerako mehatxu bat badira.

[...]

g) Eskolatzerik ez izatea edo ikastetxera behin eta berriz eta behar bezala justifikatu gabe ez joatea, eta etengabeko permisibitatea edo derrigorrezko eskolatzeko-etapetan eskola-absentismoa bultzatzea”.

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko **LEGE ORGANIKOA**.

9.2. Gogoeta orokorrak

Dokumentu honen 6. atalean eta dagozkion eranskinetan tratu txarrak zer diren, tratu txarren motak, tratu txarren adierazleak eta eman daitezkeen larritasun-mailak adierazi ditugu, besteak beste. Une honetan garrantzitsua da zehaztea zer jarduketa-sistematika jarraitu behar duen Ibérica Probintziako ikastetxe edo gizarte-obra bateko edozein pertsonak tratu txarren balizko kasu baten berri izanez gero, eta zer urrats eman behar dituzten zentro bakoitzeko arduradunek (Zuzendariak, Adingabeak babesteko toki-koordinatzaileak, eta Adingabeak babesteko toki-taldeak) tratu txarren edozein egoerari aurre egiteko, dela fisikoa, dela emozionala, dela zabarkeriagatik, dela berdinen artekoa edo sexu-abusuagatik.

Protokolo bakoitzak jarduketaren deskribapena eta urrats guztiak grafikoki adierazten dituen fluxu-diagrama bat ditu, bai eta jarraitutako urratsak jasotzen dituzten erregistro-formularioak ere.

Nolanahi ere, oso garrantzitsua da kontuan hartzea ezen, susmorik, ebidentziarik, adierazlerik edo datu nahikorik baldin badago adingabeko baten pertsonarengan delituren bat egin dela edo egiten ari dela pentsatzeko, Adingabeen babeserako probintzia-ordezkarari jakinarazi eta xehetasunak aholkularitza juridikoaren kontsultatu ondoren, agintari eskudunari gertaeren berri emango zaiola. Jakin behar dugu ez dugula delitu-egitateen ikerketak garatzeko prestakuntzarik, baliabiderik eta legezko aginpiderik.

Ezartzen dugun edozein printzipiok kontuan izan behar ditu adingabearen interes gorena, zuzenbide zibil eta kanonikoaren eskakizunak, eta kontuan hartu behar du Anaia Probintziala dela agintari gorena Probintzian. Anaia Probintziala da, azken finean, Ibérica Probintziako hezkuntza-ekintza maristan konprometituta dauden hezitzaile guztien (anaiak eta laikoak, laguntzaileak eta boluntarioak...) hezkuntza-zereginaren arduraduna.

9.3. Tratu txarren kasuetan aplikatu beharreko jarduera-irizpideak

Tratu txar mota edozein dela ere (fisikoa, emozionala, zabarkeriagatik edo abandonatzeagatik, sexu-abusuagatik, etab.) bada jarduteko irizpide multzo bat guztientzat berdina izan daitezkeenak, hala nola informazio biltzea, informazioa tratatzea eta ebaluatzea, hezkuntza-komunitateari, familiari eta komunikabideei informazioa eta komunikazioa helaraztea —beharrezkoa denean—, txostenak eta espedienteak egitea, Gizarte-zerbitzuei edo Hezkuntza-ikuskaritzako zerbitzuari jakinaraztea, adingabea behatzea eta bera babesteko neurriak hartzea, besteak beste.

9.4. Jarduteko protokoloak

Maristen Ibérica Probintziako hezkuntza-obra guztiek zenbait protokolo dituzte, gerta litezkeen tratu txarren ondorioz sortutako egoerei erantzuna emateko.

Berezko protokoloak dituzten autonomietan dauden obrak protokolo horietatik eratorritako jarraibideen arabera arautzen dira; berezko protokolorik ez duten autonomietan dauden hezkuntza-obrek, berriz, ondoren datozenen arabera jarduten dute.

Protokolo horiek dagozkien eranskinekin osatzen dira. Eranskin horietan tratu txarren kontzeptua, tratu txar motak, larritasun-mailak eta balizko tratu txarren zantzurik dagoen ala ez zehazten lagun diezaguketen adierazleak deskribatzen dira.

Dokumentu honetan jasotako protokoloak honako hauek dira:

P1 Tratu txar fisiko, emozional edo zabarkeriaren kasuetarako jarduera-protokoloa

Helburua da adingabe baten tratatu txar fisiko, psikologiko edo zabarkeriagatiko tratatu txarren susmoa edo salaketa egonez gero jarraitu beharreko urratsak ezartzea.

P2 Berdinen arteko tratatu txarren kasuetarako jarduera-protokoloa

Helburua da berdinen arteko jazarpenaren edo tratatu txarren susmoa edo salaketa egonez gero jarraitu beharreko urratsak ezartzea, dela zuzenean dela sare sozialen bidez.

P3 Sexu-abusuagatiko tratatu txarren kasuetarako jarduera-protokoloa

Helburua da adingabeei sexu-abusua eta/edo "grooming"-a gertatu zaiela susmatuz gero edo salatuz gero jarraitu beharreko urratsak ezartzea, adingabearen babesa, diskrezioa eta arazoa konpontzeko berehalako jarduera ziurtatzeko.

9.5 Komunikazioaren kudeaketa krisi-egoeran

Adingabeen aurkako abusu edo tratatu txarren balizko kasu batek eragindako krisi-egoera bat gertatzen den unean, komunikazio-beharra sortzen da, non publiko eta hedabideek informazio azkarra eta egiazkoa eskatzen duten. Lehenengo egoera horretan informazioa ez da nahikoa, edo nahasgarria izan daiteke, eta, normalean, erreakzionatzeko denbora gutxi izaten da. Horregatik, krisi bat gertatzen denean, funtsezkoa da jarraitu beharreko bidea aldez aurretik planifikatuta edukitzea, nork eta nola jokatu behar duen eta zer komunikatu behar den jakitea.

Erakundeak duen komunikazio-filosofiak bi printzipio argiri erantzuten die: **gardentasuna eta egiazkotasuna**. Hau da, komunikazioa bi premisa aldaezin horietatik abiatuta planifikatuta dago. Premisa horiek direla eta, Erakundea behartuta dago modu irekian bere barneko eta kanpoko publikoen aurrean argi eta garbi adieraztera, kasu bakoitzean beharrezkoa den informazio egiazkoa eta egokia emanaz.

10. Adingabea babesteko politikaren garapen probintziala eta lokala

Probintziako zentro guztietan Adingabeak babesteko toki-koordinatzailea eta taldea dauden lehen etapa igaro ondoren, hezkuntza-agente guztiek adingabearen babesari buruzko politikak ezagutzen dituzte, Jardunbide Egokien Kodea dakitela eta bete egin behar dutela sinatu dute, sexu-izaerako delituengatik kondenatuak izan ez direla egiaztatzen duen ziurtagiria dute eta hainbat ikastarotan banatuta dagoen tratu txar/abusu eta tratu onari buruzko prestakuntza-prozesu batean daude. Orain beharrezkoa da sentsibilizazio-ekintzekin jarraitzea, ikastetxeetan adingabea tratu txarren aurrean prebenitzeko eta babesteko kultura gara dadin, eta tratu onaren jarrera nagusi izan dadin, bai hezitzaileen artean, bai adingabeen artean.

10.1. Komunikazioa eta praktikan jartzea

Urtero, zentroan hezitzaile eta ikasle berriak sartzen dira. Adingabearen babesari buruz jakin dezaten eta harekin sentsibiliza daitezen, ez da nahikoa adingabeen babeserako probintzia-politikei buruzko dokumentu bat edukitzea. Bada funtsezko urrats bat politika horiek hezkuntza-obretan errealitate bihurtzeko: inplikaturako pertsona guztiei komunikazio eta transmisio egokia ematea. Hori dela eta, politikak ikasturte bakoitzean zabalduko dira Probintziako hainbat obretako hezkuntza-komunitateetako kide berrien artean. Era berean, politika horiek familia eta ikasle guztiei jakinaraziko zaizkie, batez ere ikastetxera lehen aldiz datozenei.

Komunikazio-prozesu hori gauzatzeko, Adingabeen babeserako probintzia-taldeak (ABPT) Hedapen-plan bat diseinatu du, eta haren ardura izango da Probintziako obren batean adingabeekin jarduerak egiten dituzten hezkuntza-agente berri guztiek (irakasleak, AZP, animatzaileak, monitorea...) hemen deskribatzen diren probintzia-politiken berri izatea. Zeregin hori errazteko, talde horrek bi sintesi-dokumentu izango ditu (bata irakasleentzat eta bestea irakasle ez diren langileentzat), eta laburpen horietan dokumentu nagusi honen funtsezkoena jasotzen da, bereziki adingabeekin egiten duten hezkuntza-ekintzan garrantzitsuenak izan daitezkeen alderdiak.

Agenteen kasuan bezala, badago plan bat familiek eta adingabeek beraiek adingabearen babeserako politika horien berri izan dezaten. Horretarako, urtero, hezkuntza-obra bakoitzean komunikazio- eta hedapen-kanpaina bat egiten da, Zuzendaritza-taldeak eta Adingabeak babesteko toki-taldeak sustatuta. Besteak beste, bi dokumentu emango zaizkie (bat familientzat eta bestea ikasleentzat), zentroak adingabeak babesteko duen politika labur eta errazean ezagutarazteko eta azaltzeko.

Hezkuntza-obra bakoitzaren errealitatearen arabera, Zuzendaritza-talde lokalak probintzia-dokumentua errealitate horretara egokituko du, eta hala, legeria autonomikoa, arriskuen ebaluazioa eta obra bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuko dira, egiturari, agenteei eta **misioaren** hartzailerei dagokienez.

10.2. Ebaluazioa, jarraipena eta eguneratzea

Adingabeen babeserako Probintzia-taldea arduratuko da hezkuntza-obra bakoitzean politika horien ezarpena ebaluatzeaz. Hori dela eta, urtean behin zentro guztietatik pasatuko da, politikak ezartzean, eta langileen kontzientziazioan, sentsibilizazioan eta prestakuntzan egindako aurrerapenak baloratzeko. Bisita horien ondoren, zentro bakoitzaren txostena egingo da, Probintzia-Kontseiluarentzako txosten orokorrarekin batera.

Hiru urtean behin, gutxienez, zentro guztiek **barne-auditoretza** egin beharko dute, probintzia-politiken ezarpen-mailaren eta adingabearen babesari buruzko prestakuntzan emandako urratsen zenbatespena egin ahal izateko, bai eta haurren tratu txarren aurrean kontzientziazio- eta sentsibilizazio-maila neurtzeko ere.

Barne-auditoretza egiteko, kasuan kasuko formularioak erabiliko dira.

"Adingabeen babeserako probintzia-politikak" dokumentua hiru urtean behin berrikusi eta eguneratuko du Adingabeen babeserako probintzia-taldeak.

1. eranskina

Erreferentziazko arau-esparrua

Politika hauek garatzean, honako araudi hau hartu da kontuan:

- Nazioartekoa

- Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1959ko azaroaren 20koa.
- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena.
- Haurren Eskubideen Europako Gutuna.
- Hagako Hitzarmena, 1993ko maiatzaren 29koa.
- Europako Parlamentuaren A4-0392/96 Ebazpena.

- Estatukoa:

- Espainiako 1978ko Konstituzioa
- Kode Zibila
- 1189/1982 Errege Dekretua, ekainaren 4koa, Gazteentzako eta Haurrentzako zenbait Jarduera Kaltegarri edo Arriskutsu Arautzeari buruzkoa.
- 732/1995 Errege Dekretua, ikasleen eskubideei eta betebeharrei eta ikastetxeetako bizikidetza-arauei buruzkoa. (BOE, 1995eko ekainaren 2koa)
- 14/1999 Lege Organikoa, ekainaren 9koa, tratu txarren biktimen babesaren arloan 1995eko Zigor Kodea eta Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen dituen.
- 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa. (2000ko urtarrilaren 13ko BOE, 11. zk.)
- 8/2006 Lege Organikoa, 2006ko abenduaren 4koa, Adingabeen Erantzukizun Penalaren arloan 2006ko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa aldatzekoa.
- 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa. (BOE, 2015eko uztailaren 23koa)
- 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa. (BOE, 2015eko uztailaren 29koa)

- Autonomikoa: Aragoi, Gaztela-Mantxan, Extremaduran, Errioxan, Madrilan, Nafarroan eta Euskadin indarrean dagoen legeria.

- Errumania: Errumaniako obretarako ere kontuan hartu da indarrean dagoen legeria. Legeria hori araudiari buruzko eranskinean kontsulta daiteke.

2. eranskina

Adingabeak babesteko politikaren estandarrak

Jarraian zerrendatzen diren estandarrek Ibérica Probintziako obra, jarduera eta horietan inplikaturako pertsona guztiek adingabeen babesaren arloan lortu behar duten betetze-maila adierazten dute.

1. estandarra: *Ibérica Probintziak eta bere obra guztiek adingabeak babesteko politika idatzia dute*
2. estandarra: *Ibérica Probintziak egitura eta prozedurak ditu ezarrita, haurren abusuak eragindako susmoei eta gertakariei erantzuteko*
3. estandarra: *Ibérica Probintziak adingabeen abusuak edo tratu txarrak prebenitzeko prozedurak ezarrita ditu.*
4. estandarra: *Ibérica Probintziak adingabeekiko portaerari buruzko gidalerro idatziak ditu*
5. estandarra: *Ibérica Probintziak jarraibide argiak ematen ditu leku eta jarduera desberdinetan babes-politika egokitzeko moduari buruz*
6. estandarra: *Ibérica Probintzia arduratzen da adingabe guztiek babestuta egoteko eskubide bera izateaz*
7. estandarra: *Ibérica probintziak mezu hau hedarazi du: "Adingabeak babestu behar dira"*
8. estandarra: *Ibérica Probintziak adingabeak babesteko prestakuntza eta gaikuntza eskaintzen ditu*
9. estandarra: *Ibérica Probintziak aholkularitzarako eta laguntzarako bideak ditu ezarrita*
10. estandarra: *Ibérica Probintziak haurrak babesteko politika garatzen du eta modu egokian berrikusten du*
11. estandarra: *Ibérica Probintziak ziurtatu egiten du azpikontrataturiko enpresek adingabeak babesteko araudia betetzen dutela*

Estandar horien betetze-maila ebaluatzeko, Probintziak auditoretzak egingo ditu, aipaturako estandarretan oinarritutako arau⁷ hauen arabera:

- 1. ARAUA - POLITIKA:** Ibérica probintzia maristak bere konpromisoa deskribatzen duen politika garatzen du hurrei eragindako kalteak prebenitzeko eta behar bezala erantzuteko
- 2. ARAUA - LANGILEAK:** Ibérica probintzia maristak erantzukizun eta itxaropen argiak ezartzen ditu bere langileentzat eta laguntzaileentzat, eta laguntza ematen die jarraibide horiek ulertu eta bete ditzaten.
- 3. ARAUA - PROZEDURAK:** Ibérica probintzia maristak ingurune seguru bat sortzen du haurrentzat, erakunde osoan aplikatzen diren haurren babeserako prozedurak inplementatuz.
- 4. ARAUA - ERANTZUKIZUNA:** Ibérica probintzia maristak bere babes-neurriak kontrolatzen eta berrikusten ditu.

⁷ KCSk auto-auditoretzarako erabiltzen dituen arauak dira

3. eranskina

Terminoen glosarioa

Adingabeak: 5/2000 Lege Organikoaren arabera, adingabeak terminoa adin-nagusitasunera iritsi ez diren pertsonen dagokie. Gure inguruan adin nagusikoa da 18 urte betetzen direnean.

Adingabeak babesteko toki- koordinatzailea (ABTK): Toki-mailan, adingabeak babesteko politika zabaltzeaz, politika horren ezarpenaren eta aplikazioaren jarraipena egiteaz eta adingabeak babesteko toki-taldea koordinatzeaz arduratzen den pertsona.

Adingabeen babes-ekintza: martxoaren 21eko 3/1995 Haurren Legearen arabera haurren arrisku- edo desanparo-egoerak prebenitzera edo desagerraraztera bideratutako jarduerak guztiak biltzen ditu.

Adingabeen babeserako probintzia-ordezkaria: Anaia Probintzialak adingabeen sexu-abusuen akusazio guztiei erantzuteko eskuordetu duen pertsona da. Honek dagokion agintaritzari txostenak prestatuko dizkio eta akusatzailea ikerketa-prozesuari buruz informatuta mantenduko du. Anaia Probintzialarekin lotura gisa jarduten du, prozesuan zehar emandako urrats guztien datuak gordetzen ditu eta neurriak hartzen ditu ustezko biktimari laguntza eman edo eskaini ahal izateko, hala komeni bada.

Adingabeen babeserako probintzia-taldea (ABPT): Adingabeen babeserako probintzia-ordezkaritari bere eginkizunak betetzen laguntzen dion taldea da. Probintzia-ordezkariek eta beste hiru pertsonak osatzen dute, Anaia Probintzialak eta bere Kontseiluak izendatuta.

Adingabeak babesteko talde exekutiboa (ABTE): abusu edo tratu txarren salaketa kasu bat ezagutu ondoren, ezarritako protokoloa betetzeko behar diren baliabideak mobilizatzen dituen taldea da, eta tokiko arduradunei laguntzen die gatazka konpontzeko modurik onena ezartzeko. Haren partaideak honako hauek dira: Adingabeen babeserako probintzia-ordezkaria, Adingabeak babesteko probintzia-taldeko kide bat, Zuzendari lokala, Komunikazio-bulegoaren arduraduna eta Anaia Probintziala, akusatua anaia bat bada, edo HOKEko koordinatzailea, akusatua zentroko langileetarik bat bada.

Adingabeak babesteko toki-taldea (ABTT): toki-mailan, adingabeak babesteko toki-koordinatzaileari bere eginkizunak betetzen eta zentroan adingabeei tratu txarrak emateagatik sor daitezkeen egoerak konpontzen laguntzen dion taldea da. ABTTko kide izango dira Zuzendaria, Orientatzailea eta Adingabeak babesteko toki-koordinatzailea. Kasu jakin batzuk ebaztean, beste bi pertsona sartu ahal izango dira talde horretan, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera: Tutorea, Etaparen koordinazioa, Pastoralaren koordinazioa, Kirol-koordinazioa, Bizikidetzaren koordinazioa, Hezikidetzaren arduraduna... Ez da inolaz ere talde honetako kide izango kasuan inplikazio emozional zuzena duen pertsona bat (familiakoa, adiskidetasun-harremana, etab.).

Adingabeak babesteko politika instituzionalak: Ibérica probintzia maristak behar diren neurri guztiak hartzeko duen konpromisoa, adingabeen ongizatea sustatzeko, kalte, esplotazio eta abusu guztietatik babesteko eta haien eskubideak defendatzeko, bai eta lankidetzaren sareetan elkarrekin lan egiteko ere, haurrek gai horiei buruzko informazioa hobeto eskura dezaten. Adingabeak eskubide horien subjektu direla konturatu daitezkeen laguntza, eta gure erakundeetan eragiten dieten politiketan parte-hartze esanguratsua dutela bermatzeko metodoak eta tresnak prestatzea.

Adingabearen babesa: *“Haurren babesa erakundeek duten erantzukizuna da beren langileek, jarduerak, eta programek haurrei kalterik ez dietela egiten ziurtatzeko, hau da, ez dietela kalterik edo abusurik jasateko arriskurik eragingo, eta dagokien agintariei jakinarazi behar zaiela erakundeak edozein zalantza badu jarduten duen ingurunean haurren segurtasunari buruz”*

Adingabea umiliatzea: adingabe bat gutxietsi, mortifikatu, mespretxatu, nahastu edo lotsarazteko, haurraren harrotasuna apaltzeko, haren duintasunak kalteren bat jasaten duen egoera batetik pasartzeko egiten den ekintza.

Agenteak: gure hezkuntza-obretan jardueraren bat garatzen duten eta, nola edo hala, gure ardurapean dauden haur eta gazteekin harremanetan jartzen diren pertsona guztiak.

Akusazioa: haur-abusu baten salaketa, lehen pertsonan, hezkuntza-komunitateko egungo kide baten edo kide historiko baten aurka. Akusazioak hainbat komunikabidetatik irits daitezke, anonimoak direnak barne.

Akusazio sinesgarria: akusazio honek, egitateetan eta inguruabarretan oinarrituta, funtsa duela ematen du, eta adingabe baten abusua gertatu dela uste izatera eramaten du.

Berdinen arteko tratu txarrak / bullying-a: ikasleen arteko edozein motatako tratu txar psikologikoa, ahozkoa edo fisikoa, behin eta berriz gertatzen dena eta denboran zehar mantentzen dena, helduen begiradatik urrun, eta biktima babesgabea umiliatzeko eta abusuz menderatzeko asmoarekin.

Berdinen arteko tratu txar mota orok, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz (mugikorren mezuak, posta elektronikoa, sare sozialak, txat-a...), **“ziberbullying”** izena jasotzen du.

Biktima: ekintza edo omisio batek eragindako kaltea edo galera jasaten duen pertsona, dela beste pertsona baten erruz, dela ustekabeko arrazoiengatik.

Delitua: legeak zigortzen dituen ekintza edo omisio guztiak, doloak edo zehatziaz.

Exhibizionismoa: beste pertsona batzuen aurrean jarrera lizuna izatea, haien arreta erakartzeko. Organo genitalak erakustera bultzatzen duen perbertsioa.

Gazteak: 10 eta 24 urte bitarteko pertsonak, nahiz eta ez dagoen horretarako muga zehatzik. Gaztetasuna haurtzaroaren eta helduaroaren artean kokatzen den adina da. (ONU-UNESCO)

Giza eskubideak: gizarte garaikideak onartzen du gizaki orok, hala izateagatik, Estatuaren aurrean eskubideak dituela, eta Estatuak eskubide horiek errespetatu eta bermatu egin behar dituela, edo, bestela, erabat bete behar dituela. Eskubide horiek, pertsona ororen ezaugarriak eta bere duintasunari datxekionak, Estatuak errespetatu, bermatu edo ase behar dituenak, gaur egun giza eskubide bezala ezagutzen ditugunak dira.

Grooming-a: heldu batek gehienbat sare sozialen bidez egindako sexu-jazarpena. Adingabe baten gainean harreman eta kontrol emozional bat ezartzeko nahita egindako ekintzak dira, adingabea seduzitzeko eta sexu-abusurako eremua prestatzeko. Sexu-eduki esplizitua edo inplizitua duten jazarpen-egoerak dira.

Haurren aurkako tratu txarrak: “ekintza, omisio edo tratu axolagabea, ez-halabeharrezkoa, adingabeari eskubideak eta ongizatea kentzen dizkiona, bere garapen fisiko, psikiko edo soziala mehatxatzen edo oztopatzen duena, eta autoreak pertsonak, erakundeak edo gizartea bera izan daitezkeenak”.⁸

Haurraren isolamendua: gurasoek edo legezko tutoreek gauzatutako ekintza, adingabeak harreman sozialeko aukera normalak modu positibo eta aktiboan mantentzea eta aprobetxatzea saihesten duena.

Hitzezko eraso adingabe bati: behin eta berriz adingabearen autokontzeptua iraintzen, umiliatzen eta laidotzen duen hitzezko jokabidea.

Konfidentziala: informazio pribatua, zeinaren dibulgazioa, berezko izaeragatik, mugatuta dagoena, eta pertsona bati arrazoi profesional edo instituzionalengatik edo legezko eskakizunengatik bakarrik jakinaraz dakioko pertsona bati.

Pertsona kaltebera: fisikoki edo moralki kaltetua edo zauritua izan daitekeen pertsona, adingabea izateagatik edo desgaitasuna izateagatik.

Tratu txar emozionala: jarrerak, ekintzak eta hitzezko etsaitasun iraunkorra, hala nola iraina, mespretxua, umiliazioak, deskalifikazioak, kritika edo abandonu-mehatxua; haurren interakzio-ekimenak etengabe blokeatzea (ekiditetik hasita eta entzierro edo konfinamendura arte), eta edozein helduk interakzio sozialerako eta autonomia lortzeko aukeren gabetzea.

Tratu txar fisikoa: adingabeari lesio fisikoak, gaixotasunak edo horiek jasateko arriskua eragiten dion ustekabekoa ez den edozein ekintza, bai eta hura babesteko zabarkeria ere.

Tratu txarra / Sexu-abusua: heldu baten eta adingabe baten arteko edozein sexu-harreman eta sexu-interakzio, non helduak adingabearen gaineko botere- edo aginte-posizioa betetzen duen, eta adingabea bere sexu-estimulaziorako erabiltzen duen, edo adingabearena edo beste pertsona batena. Sexu-abusua 18 urtetik beherako pertsona batek ere egin dezake,

⁸ Haurren Behatokia 2008an (Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa)

adingabea/biktima baino nabarmen handiagoa denean, edo adingabearen gaineko botere- edo kontrol-egoeran dagoenean.

Zabarkeriagatiko tratu txarrak: adingabearen oinarritzko beharrian fisiko, kognitibo eta emozionalei aldi baterako edo etengabeko arretarik eza, bai eta zaintza-, arta- eta babes-betebeharrak ez betetzea ere.

Ziberbullying-a: berdinen arteko edozein tratu txar mota, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz (mugikorreko mezuak, posta elektronikoa, sare sozialak, txat-a...)

“Adingabeen babeserako probintzia-politikak” izeneko dokumentu hau 2020ko uztailaren 9ko bileran onartu zuen Probintzia-Kontseiluak.